



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UPV/EHUko Administrazio eta
Zerbitzuen lanpostuetako
hizkuntza erabileraren diagnostikoa

2020

Siadeco^x
ikerketa aplikatua

Berio pasealekua 11, 20018 Donostia
943 31 00 34

siadeco@siadeco.eus



Aurkibidea

0. Sarrera.....	3.
1. Metodologia	5.
1.1. Ikerlanaren unibertsoa eta laginketa	5.
1.2. Fitxa teknikoa	7.
2. Langileen soslaia.....	10.
2.1. Hizkuntza eskakizunak.....	10.
2.2. Hizkuntza gaitasuna.....	13.
3. Lanpostuaren ahozko eta idatzizko harreman motak.....	19.
4. Zerbitzu hizkuntza	21.
4.1. Hizkuntza paisaia eta irudi linguistikoa.....	22.
4.2. Ahozko zerbitzu hizkuntza	24.
4.2.1. Telefono bidezko harremanak.....	24.
4.2.2. Aurrez aurreko harremanak.....	28.
4.2.3. Aurkezpenak eta saioak.....	33.
4.3. Idatzizko zerbitzu hizkuntza	34.
5. Lan hizkuntza	36.
5.1. Ahozkoa	36.
5.2. Idatzizkoa	45.
5.3. Sortze hizkuntza	50.
5.4. Aplikazio informatikoak.....	52.
5.5. Prestakuntza.....	53.
5.6. Hizkuntza kudeaketa	56.
5.7. Iritzia.....	61.
6. Hizkuntza adierazleen taula	107.
6.1. Zerbitzu hizkuntza	108.
6.2. Lan hizkuntza	109.
6.3. Adierazleen taula: egitura eta kalkulurako prozedura eta emaitzak	111.
7. Ondorioak.....	133.
Eranskinak	136.

0. Sarrera

Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautua du apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak. Horren arabera, euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu behar du entitate bakoitzak. VI. plangintzaldia dago, egun, indarrean, 2018-2022 artean.

Eusko Jaurlaritzak 2013-2017 plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egin zuen Euskal Autonomia Erkidego mailan, hau da, hiru lurraldeetako herri administrazioetako erakunde publiko, erakunde autonomo eta sozietate publikoetan egindako ebaluazioaren emaitza orokorrak jaso ziren. Ikerlan hori egiteko, UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuen Pertsonaleko (AZP) lagin txiki bati zuzendutako inkestak ere egin ziren baina erabilitako lagina txikiegia zen UPV/EHU mailako datuak estatistikoki adierazgarriak izateko.

UPV/EHUko pertsonalari lehen egindako inkestarako erabilitako metodologia berdinarekin, EHUko Administrazio eta Zerbitzuen Pertsonalaren lagin adierazgarri bati luzatu zaio orain inkesta, AZP ataletako hizkuntza erabileraren diagnostikoa egitea izanik ikerlanaren helburu nagusia. Horrez gain, ikastegi bakoitzeko arduradun edota solaskideen bitartez, ikastegi bakoitzari eta erakundeari berari dagokion informazio orokorra ere jaso da.

Informazio bilketarako, beraz, bi informazio iturri erabili dira, AZPko langileak, batetik, eta zentro edo fakultateetako arduradunak bestetik; maila desberdinetan estatistikoki adierazgarriak izan daitezkeen iturriak dira.

Neurketa bi ardatzetan egituratu da: zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza. Lehenengoan, aztertu da zein den hizkuntza egoera Unibertsitateko AZPko langileen zerbitzuak jasotzen dituztenen aldetik begiratuta, izan beste atal/zerbitzuetako langileak (irakasle, ikertzaile, AZP), nahiz erakundez kanpokoak (ikasle, ikasle potentzial, guraso, bestelako hiritar, erakunde eta enpresak...); alegia, nola ageri den erakundea zerbitzua jasotzen duenaren aurrean. Horretarako, iruditeria aztertu da eta zerbitzuak jasotzen dituztenekiko harremanak. Bigarreanean, berriz, erakundearen lan jardunari erreparatu zaio: barneko erabilerari, beste erakundeekiko eta enpresekiko harremanari, lan tresnei, kudeaketari eta sorkuntzari. Alderdi kualitatiboak ere kontuan hartu dira bukatzeko, euskarak erakundean duen egoerari eta bilakaerari buruzko iritziak hala nola. Horrekin batera, erakundearen hizkuntza soslaia aztertu da. Jasotako adierazle guztiak taula batean bildu dira, adierazlez adierazleko argazkia osatzeko. Eta, amaieran, ikerlanaren ondorioen atala idatzi da.

1. Metodologia

1.1. Ikerlanaren unibertsoa eta laginketa

Aztergai hartu da UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala. Unibertsitatetik bertatik jasotako informazioaren arabera, unibertsoa 1.774 langilek osatzen dute. Ikerlan hau egitearekin lortzen diren euskararen erabilerari buruzko datuen adierazgarritasun estatistikoa, erakunde osoari dagokiona izateaz gain, Campusaren arabera, Administrazio atalaren hizkuntza izaeraren arabera eta Zentro-motaren arabera ere izateko, erakunde mailako datu orokorrak jakiteko behar den lagina baino lagin zabalagoarekin egin da lan. Horrela, laginketa-sistema geruzatua aplikatu da, datuak behar besteko adierazgarritasun estatistikoarekin lortu nahi diren geruza bakoitzerako azpi lagin batekin lan eginez, eta ondoren, erakundearen emaitza orokorrak kalkulatzeko, geruza bakoitzak erakunde osoarekiko duen pisuaren arabera, azpi-lagin bakoitzeko datuak ponderatu edo haztatu egin dira.

Ikerlana abiatzeko, ondorengoak dira unibertsoari buruzko datuak:

1. taula: ikerlanaren unibertsoa osatu duten AZPko langileen kopurua.

Zentro-mota	Atalaren hizkuntza izaera	Campusa			Guztira
		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	
Hezkuntza fakultatea	Elebiduna	26	32	20	78
	Guztira	26	32	20	78
Beste fakultateak	Elebiduna	44	138	200	382
	Bestelakoa	61	33	249	343
	Guztira	105	171	449	725
Zerbitzu orokorrak	Euskarazkoa	10	22	52	84
	Elebiduna	68	89	295	452
	Bestelakoa	30	49	356	435
	Guztira	108	160	703	971
Guztira	Euskarazkoa	10	22	52	84
	Elebiduna	138	259	515	912
	Bestelakoa	91	82	605	778
	Guztira	239	363	1172	1774

Iturria: Siadeco, 2020.

Guztira beraz 1774 langileko lan unibertsoa hartu da abiapuntu modura.

1.2. Fitxa teknikoa

Azaldu berri duguna kontuan hartuz, jarraian dago egindako landa-lanaren fitxa teknikoa:

UNIBERTSOA

Euska Herriko Unibertsitateko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala (1.774, erakundeak pasatako informazioaren arabera).

Langile horiei loturiko ingurunearen (zentro, ikastegi, fakultateak) bestelako informazioa (18 fakultateetako eta 3 campusetako ordezkariak).

TEKNIKA

Galde-sorta egituratua erabili da, bai fakultateetako ordezkarietara, erakundearen beraren informazioa eskatzeko; baita langileak inkestatzeko ere.

On-line betetzeko inkesta bidali zaie, bai erakundeetako ordezkarietara, baita langileetara ere.

INKESTA

Siadecok ikerlan honetarako espezifikoki diseinaturiko bi galde-sorta egituratu erabili dira, -bat, fakultateetako "solaskideek" betetzeko, eta bigarrena, langileak betetzeko.

LAGINKETA MOTA

Aurreko atalean esan bezala, euskararen erabilerari buruzko datuen adierazgarritasun estatistikoa, erakunde osoari dagokiona izateaz gain, Campusaren arabera, administrazio atalaren hizkuntza izatearen arabera eta Zentro-motaren arabera ere izateko laginketa egin da. Horrela, laginketa-sistema geruzatua aplikatu da, datuak behar besteko adierazgarritasun estatistikoarekin lortu nahi diren geruza bakoitzerako azpi lagin batekin lan eginez, eta ondoren, erakundearen emaitza orokorrak kalkulatzeko, geruza bakoitzak erakunde osoarekiko duen pisuaren arabera, azpi-lagin bakoitzeko datuak ponderatu edo haztatu egin dira.

Behin geruza bakoitzean egin beharreko inkesta kopurua zehaztuta, inkestatu beharreko langilea ausaz hautatu da. Hezkuntza fakultateen kasuan, langile guztiei egokitu zaie inkestari erantzutea.

LAGINAREN TAMAINA ETA ERRORE-MARJINA ESTATISTIKOA

Guztira langileen 766 inkesta egin dira eta fakultateetako 18 eta campusetako 3 ordezkariaren datuak ere jaso dira.

Errore-marjina estatistikoa orokorra, langileen inkestarako $\pm 2,67$ da, %95,5eko konfiantza tarterako ($p=q=0.5$ izanik ausazko laginketa sinplerako). Campusaren, administrazio atalaren hizkuntza izatearen eta zentro-motaren arabera emaitzen errore-marjina zehatzak ondorengo taulan adierazten ditugu.

2. taula: landa-lanaren errore marjina estatistikoa

	Unibertsoa	Lagina	Errore tartea
Administrazio-atalen izaera			
1 Euskarazko administrazio-atalak	84	69	5,02
2 Administrazio-atal elebidunak	912	364	3,98
3 Administrazioko beste unitateak	778	333	4,06
Guztira Administrazio-atalen hizkuntza izaeraren arabera	1.774	766	2,67
Campusa			
1 Araba	239	176	3,80
2 Bizkaia	363	214	4,30
3 Gipuzkoa	1172	376	4,17
Guztira Campusen arabera	1.774	766	2,67
Zentro-mota			
1 Hezkuntza fakultateak	78	54	7,45
2 Beste fakultateak	725	303	4,30
3 Zerbitzu orokorrak	971	409	3,69
Guztira Zentro-moten arabera	1.774	766	2,67

Iturria: Siadeco, 2020.

EGIN DEN GARAIA

Informazio bilketarako landa-lana, 2020ko maiatzetik uztailera burutu da.

PROZEDURA METODOLOGIKOAREN URRATSAK

Prozedura metodologikoaren aldetik, garatutako ikerlanean ondorengo urratsak eman dira:

- Metodologia dosierraren diseinu eta baliozkotzea: laginketa diseinua, bi galdekizunak, landa laneko arduradunen trebakuntza.
- Erakundeak langileen posta elektronikoak eskura izanda, galde-sortaren bidalketa zuzenean egin da Siadecotik.
- Landa lanaren garapen, jarraipen eta kontrol zehatza.
- Eskuratutako informazioaren azterketa: arazketa, birkodifikazioak eta ustiaketa estatistikoa (SPSS).
- Datuen haztapena: langileen kasuan, lehen esan bezala, campusaren, administrazio-atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera haztatu dira datuak, horien arabera langileek duten pisu errealerara egokitzeko.
- Informazioaren ustiaketa, azterketa eta interpretazioa.

LAGINAREN SEXUA ETA ADIN TARTEA

Amaitzeko, hauxe laginaren sexuaren eta adin tartearen araberrako banaketa:

3. taula: inkestatutako langileak sexuaren eta adin tartearen arabera.

	Sexua		Guztira
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	
<=35 urte	19 %3,8	11 %4,1	30 %3,9
36-45 urte	104 %20,8	73 %27,4	177 %23,1
46-55 urte	218 %43,6	109 %41,0	327 %42,7
>55 urte	159 %31,8	73 %27,4	232 %30,3
Guztira	500	266	766
% (horizontala)	65,3	34,7	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Emakumeak dira hiru beharginetik bi. Batez beste 50,5 urte dauzkate Euskal Herriko Unibertsitateko AZP-ko langileek.

2. Langileen soslai

2.1. Hizkuntza eskakizunak

Euskal Herriko Unibertsitateak berak emandako informazioarekin aztertu da AZPko langileen artean zein hizkuntza eskakizun dauden ezarrita: bigarrena dago hedatuena (%59), eta ondoren, hirugarrena (%29). Lanpostuei ezarritako HEen egiaztatze maila aztertuta, lanpostuak daukana edo altuagoa egiaztatuta dute lanpostuen %75ek, ezer egiaztatu gabe dutenak %15 dira eta ezarritakoa baino baxuagoren bat dutenak %8.

4. taula: hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila, lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren arabera.

	Lanpostuaren HE edo altuagoa egiaztatuta		HE baxuagoren bat egiaztatuta		Ezer egiaztatu gabe		Zehaztu gabe		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
1. HE	123	78,8	0	0,0	33	21,2	0	0,0	156	100,0
2. HE	816	77,8	62	5,9	171	16,3	0	0,0	1049	100,0
3. HE	373	71,6	78	15,0	70	13,4	0	0,0	521	100,0
4. HE	14	100,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	14	100,0
Zehaztu gabe	0	0,0	0	0,0	0	0,0	34	100,0	34	100,0
Guztira	1326	74,7	140	7,9	274	15,4	34	1,9	1774	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Ezarpen hori aztertzen bada bestelako aldagaien arabera, hona hemen emaitzarik esanguratsuenak: Gipuzkoako campusean lanpostuari ezarritako HE edo altuagoa egiaztatua dute AZPko langileen %86k; “euskarazko” izendatutako ataletan %89koa da portzentajea, eta zentro-motaren arabera, hezkuntza fakultateetan %87koa da kopuru hori.

Ezer egiaztatu gabekoen portzentaje orokorra %15ekoa izanik, Gipuzkoako campuseko langileen artean da guztietan baxuena portzentaje hori, %8koa. Atalaren hizkuntza izaera aztertuta, euskarazko izendatutakoetan %2koa da eta zentro-motari jarraiki, hezkuntza fakultateetan %6koa.

5. taula: hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila, campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera.

		Lanpostuaren HE edo altuagoa egiaztatuta		HE baxuagoren bat egiaztatuta		Ezer egiaztatu gabe		Zehaztu gabe		Guztira	
		Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Campusa	Araba	174	72,8	20	8,4	40	16,7	5	2,1	239	100,0
	Gipuzkoa	311	85,7	17	4,7	31	8,5	4	1,1	363	100,0
	Bizkaia	841	71,8	103	8,8	203	17,3	25	2,1	1172	100,0
	Guztira	1326	74,7	140	7,9	274	15,4	34	1,9	1774	100,0
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazkoa	75	89,3	4	4,8	2	2,4	3	3,6	84	100,0
	Elebiduna	728	79,8	58	6,4	111	12,2	15	1,6	912	100,0
	Bestelakoa	523	67,2	78	10,0	161	20,7	16	2,1	778	100,0
	Guztira	1326	74,7	140	7,9	274	15,4	34	1,9	1774	100,0
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	68	87,2	4	5,1	5	6,4	1	1,3	78	100,0
	Beste fak.	564	77,8	38	5,2	114	15,7	9	1,2	725	100,0
	Zerb. Orok.	694	71,5	98	10,1	155	16,0	24	2,5	971	100,0
	Guztira	1326	74,7	140	7,9	274	15,4	34	1,9	1774	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Lanpostuari ezarritako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun datak aztertuta, data jada pasata dago lanpostuen %61etan, eta datarik ez daukate ezarria %33k, 2019 urtea daukate %3k eta 2022 urtea %0,8k, gainerakoak informaziorik gabeko kasuak dira (%2).

6. taula: hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila, lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren derrigortasun dataren arabera


	Lanpostuaren HE edo altuagoa egiaztatuta		HE baxuagoren bat egiaztatuta		Ezer egiaztatu gabe		Zehaztu gabe		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Jada pasata	1019	93,7	23	2,1	46	4,2	0	0,0	1088	100,0
2019	46	97,9	0	0,0	1	2,1	0	0,0	47	100,0
2022	3	20,0	1	6,7	11	73,3	0	0,0	15	100,0
Nahikoa informaziorik ez	0	0,0	0	0,0	0	0,0	34	100,0	34	100,0
Datarik ez	258	43,7	116	19,7	216	36,6	0	0,0	590	100,0
Guztira	1326	74,7	140	7,9	274	15,4	34	1,9	1774	100,0

Iturria: EHU. Siadecok landua, 2020.

2.2. Hizkuntza gaitasuna

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, langileei galdetu zaie nola moldatzen diren euskaraz ulertzeko, irakurtzeko, hitz egiteko eta idazteko. Datu aitortua jaso da, beraz: langileen autopertzepzioa. Maila handiena ulermenean eta irakurmenean dago: hamarretik zortzik diote maila ona edo nahiko ona dutela bai ulertzeko eta baita irakurtzeko ere. Idazten hamarretik ia zazpik adierazi dute hori eta hizketan hirutik bik.

1. grafikoa: AZPko langileen euskara gaitasun aitortua, trebetasunen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

AZPko langileen euskara gaitasun aitortua campusari, atalaren hizkuntza izaerari eta zentro-motari jarraiki aztertuko da jarraian.

Euskaraz ongi edo nahikoa ongi hitz egiteko gai direla aitortu du inkestaturen %65ek orokorrean. Gaitasun hori bera %82koa da Gipuzkoako campusean (mailarik altuena duena) eta %61ekoa Bizkaikoan (mailarik baxuenekoa); Arabakoan artean hitz egiteko gaitasuna azken horiena baino 3 puntu altuagoa da. Idazteko gaitasunarekin ere joera bera da; ongi eta nahikoa ongi idazteko gaitasun orokorra %69koa izanik, Gipuzkoako campuseko langileak %80ean kokatzen dira eta Bizkaikoak %65ean; Arabakoak, azken horien gainetik bi puntu eskasera kokatzen dira (%67).

Euskarazko bezala izendatutako ataletan da guztietan altuena AZPko langileen hitz egiteko gaitasuna, %86koa; atal elebidunetan %66koa eta bestelakoetan %62koa. Idatzi ongi edo nahikoa ongi egiten dutela diote euskara ataletako 10 langiletik 9k, atal elebidunetako 10etik 7k eta bestelako izaera duten ataletako langileen 10etik 6k pasatxo. Zentro-motaren arabera aldeak murriztu egiten dira. Hezkuntza fakultateetan 4tik 3k ongi edo nahikoa ongi hitz egin eta idazten dutela diote, zerbitzu orokorretan 3tik 2k inguru eta hezkuntzakoak ez diren bestelako fakultateetan ere 3tik 2k inguru.

7. taula: AZPko langileen euskara gaitasun aitortua, campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).


		Campusa				Atalaren hizkuntza izaera				Zentro-mota			
		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	Euskarazko atala	Atal elebiduna	Bestelakoa	Guztira	Hezkuntza Fak.	Bestelako fak.	Zerb. orok.	Guztira
		%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Ulertu	Ezer ez	0,6	0,5	2,1	1,6	0,0	0,9	2,6	1,6	0,0	1,9	1,4	1,6
	Hitz batzuk	5,2	0,4	3,7	3,2	0,0	1,6	5,5	3,2	1,5	2,9	3,7	3,2
	Zertxobait	12,7	6,4	9,9	9,5	2,8	8,1	12,0	9,5	3,6	10,4	9,4	9,5
	Nahikoa ongi	20,4	18,7	31,3	27,3	12,2	28,7	27,2	27,3	19,8	27,7	27,5	27,3
	Ongi	58,8	71,7	49,6	55,4	83,5	57,5	49,9	55,4	71,5	55,1	54,3	55,4
	Zehaztu gabe	2,3	2,3	3,4	3,0	1,5	3,4	2,7	3,0	3,7	2,0	3,7	3,0
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Hitz egin	Ezer ez	4,6	0,5	3,9	3,3	0,0	1,4	5,8	3,3	3,0	3,6	3,1	3,3
	Hitz batzuk	5,2	1,4	5,2	4,4	0,0	2,1	7,6	4,4	0,0	4,7	4,6	4,4
	Zertxobait	23,5	13,9	26,8	23,7	12,5	26,5	21,8	23,7	17,1	24,6	23,6	23,7
	Nahikoa ongi	22,7	27,4	26,7	26,3	24,9	25,9	27,0	26,3	27,1	24,7	27,4	26,3
	Ongi	41,6	54,5	34,0	39,2	61,1	40,7	35,2	39,2	49,1	40,3	37,6	39,2
	Zehaztu gabe	2,3	2,3	3,4	3,0	1,5	3,4	2,7	3,0	3,7	2,0	3,7	3,0
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Irakurri	Ezer ez	3,5	0,5	3,7	3,0	0,0	1,3	5,3	3,0	1,5	4,6	1,9	3,0
	Hitz batzuk	3,5	0,0	3,7	2,9	0,0	1,5	4,9	2,9	0,0	1,8	3,9	2,9
	Zertxobait	12,1	8,5	11,2	10,8	1,4	10,4	12,3	10,8	7,2	13,2	9,2	10,8
	Nahikoa ongi	25,8	27,7	32,1	30,4	25,8	31,6	29,4	30,4	27,4	28,4	32,1	30,4
	Ongi	52,8	61,0	45,9	50,0	71,3	51,9	45,4	50,0	60,2	49,9	49,2	50,0
	Zehaztu gabe	2,3	2,3	3,4	3,0	1,5	3,4	2,7	3,0	3,7	2,0	3,7	3,0
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Idatzi	Ezer ez	5,7	0,9	5,1	4,4	0,0	1,4	8,2	4,4	3,0	5,4	3,7	4,4
	Hitz batzuk	3,4	0,4	3,6	2,9	0,0	2,1	4,2	2,9	0,0	2,4	3,5	2,9
	Zertxobait	21,2	16,4	22,5	21,1	9,0	22,3	20,9	21,1	17,1	22,7	20,2	21,1
	Nahikoa ongi	26,6	35,0	32,2	32,0	35,5	35,0	28,0	32,0	34,5	31,9	31,9	32,0
	Ongi	40,8	45,0	33,3	36,7	54,0	35,7	35,9	36,7	41,7	35,6	37,1	36,7
	Zehaztu gabe	2,3	2,3	3,4	3,0	1,5	3,4	2,7	3,0	3,7	2,0	3,7	3,0
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.


Adina eta hizkuntza gaitasuna lotuta, badago aldea hizkuntza gaitasunean. Joera argia da: zenbat eta gazteago, gaitasun handiagoa. Lau adin talde bereizi dira: 35 urte edo gutxiago, 36-45, 46-55 eta 55etik gora.

Kontuan izatekoa da adin talde guztien pisua ez dela berbera: 35 urte edo gutxiagoko beharginek dute gaitasun maila handiena, baina langileen %4 dira; 55 urtez gorakoek dute txikiena, eta %30 dira. Adin talde batetik bestera badago aldea, baina badaude joera komunak. Batetik, ulermenean eta irakurmenean dutela mailarik onena denek. Bestetik, hizketa eta idazketa alderatuta, bi norabide: 45 urtetik gora, zertxobait gehiago dira euskaraz ongi edo nahiko ongi idazten dutenak, ongi edo nahiko ongi hitz egiten dutenak baino; 45 urtez behera, aldiz, maila oso parekoan daude bi gaitasunak.


2. grafikoa: 35 urtetik beherako langileen hizkuntza gaitasun aitortua (%) (inkestatu guztien %4)




3. grafikoa: 36-45 urteko langileen hizkuntza gaitasun aitortua (%) (inkestatu guztien %23)



4. grafikoa: 46-55 urteko langileen hizkuntza gaitasun aitortua (%) (inkestatu guztien %43)



5. grafikoa: 55 urtetik gorako langileen hizkuntza gaitasun aitortua (%) (inkestatu guztien %30)




■ Ongi
 ■ Nahiko ongi
 ■ Zertxobait
 ■ Hitza batzuk
 ■ Ezer ez
 ■ Zehaztu gabe


Iturria: Siadeco, 2020.

Hizkuntza eskakizunak eta langileen euskara maila aitortua ere alderatu dira. Lau hizkuntza eskakizunetatik aparte, beste aukera bat ere bada: batere eskakizunik egiaztatu gabekoak. Eskakizuna egiaztatu gabekoan artean, hitz egiteko gaitasunean ikusten da euskara maila apalena eta ulermenean altuena. Maila trebetasunen arabera aztertzen bada, hau da norabidea: zenbat eta eskakizun apalagoa, orduan eta koska handiagoa dago trebetasun batetik bestera orokorrean —ulermenean maila handiena, mintzamenen txikiena—.


6. grafikoa: 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenen euskara maila aitortua (%)



7. grafikoa: 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenen euskara maila aitortua (%)




8. grafikoa: 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenen euskara maila aitortua (%)




Iturria: Siadeco, 2020.

9. grafikoa: 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenen euskara maila aitortua (%)




10. grafikoa: hizkuntza eskakizunik egiaztatuta ez dutenen euskara maila (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

Langileen hizkuntza gaitasuna aztertu da sexuaren arabera ere. Emakumeek gaitasun hobea aitortzen dute euskara ulertzeko, irakurtzeko eta idazteko; gizonetzkoen lau puntu gaineratik kokatzen dira trebetasun horietan ongi edo nahiko ongi moldatzen direla diotenak. Hitz egiteko, berriz, gizonetzkoek gaitasun apurtxo bat hobea aitortzen dute emakumezkoek baino (haien %66k ona edo nahiko ona; eta hauen %65ek ona edo nahiko ona).

11. grafikoa: langileen hizkuntza gaitasuna, sexuaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

3. Lanpostuaren ahozko eta idatzizko harreman motak

AZPko langileek zein kolektiborekin dituzten harremanak, bai ahoz eta baita idatziz ere aztertu da ikerlanean. AZPko pertsonala den lankideekin eta zerbitzuak eman beharreko Unibertsitateko beste ataletako lankideekin dituzte harremanak gehien, %77k. AZPko lankideekin harremanak dituzte erdiek, %52k, eta Unibertsitatez kanpoko kolektiboekin %43k. Bestelako kolektiboekin harremanak dituztenak %8 dira, eta horien artean ikasleak aipatu dituzte gehien.

Campusaren arabera, Araban gehiago dira AZPko lankideekin eta unibertsitate bertako irakasle zein ikertzaileekin harremanak dituztenak, 10etik ia 9. Baita unibertsitatez kanpoko kolektiboekin harremanak dituztenak ere, erdiek zehazki. Euskarazko izendatutako ataletan ere, batez bestekoaren gainetik daude unibertsitatez kanpoko kolektiboekin harremanak dituztenak, erdiak pasatxo (%54). Batez bestekoaren oso gainetik kokatzen da ere hezkuntza fakultateetako langileek AZPko beste lankideekin eta unibertsitate barneko beste lankideekin harremanak badituztela adierazten duen indizea, %93koa zehazki.

8. taula: AZPko langileen lanpostuari lotutako harreman motak, campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		AZPko beste lankideekin	AZPko beste lankideekin eta zerbitzuak eman beharreko Unibertsitateko beste ataletako lankideekin (irakasleak eta ikertzaileak)	Unibertsitatez kanpoko kolektiboekin	Bestelakoekin
Campusa	Araba	47,8	88,2	48,5	10,0
	Gipuzkoa	51,4	83,1	41,8	12,1
	Bizkaia	53,7	73,2	42,4	6,9
	Guztira	52,4	77,3	43,1	8,3
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	49,6	75,9	53,8	13,3
	Atal elebiduna	53,7	75,7	42,8	8,0
	Bestelakoa	51,2	79,2	42,3	8,2
	Guztira	52,4	77,3	43,1	8,3
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	53,1	92,6	44,5	10,6
	Beste fak.	45,5	89,0	42,6	8,3
	Zerb. Orok.	57,6	67,3	43,3	8,2
	Guztira	52,4	77,3	43,1	8,3

Iturria: Siadeco, 2020.

4. Zerbitzu hizkuntza

Euskal Herriko Unibertsitateko AZPko langileen artean euskara zertan den aztertzeke, lehenik zerbitzu hizkuntzaren ikuspegiari heldu zaio: erakundeen zerbitzuak jasotzen dituztenen aldetik begiraturata, nolakoa den hizkuntzen egoera. AZPko langileen zerbitzuak jasotzen dituzten kolektiboak bi dira: beste atal/zerbitzuetako langileak batetik (irakasle, ikertzaile, AZP), eta unibertsitateaz kanpokoak bestetik (ikasle, ikasle potentzial, guraso, bestelako hiritar, erakunde eta enpresak...).

Bi atal ditu zerbitzu hizkuntzari buruzko azterketak: bata irudia eta bestea zerbitzuak jasotzen dituztenekiko harremanak. Badira arlo batzuk AZPko pertsonalak zuzenean esku hartzen dutenak eta, kasu horietan, beharginei eurei galdetu zaie. Zentroetako solaskideen informazioa erabili da egiturazko egoeraren berri jasotzeko, hizkuntza paisaia eta iruditeriari dagokiona alegia. Aurkezpen eta saioei buruz langileei eta solaskideei galdetu zaie, biei.

Informazioa aurkezteko garaian, irakurketa errazte aldera, ahozko erabileran, tartek erabili dira. “Beti edo ia beti euskaraz edo bietara” eta “euskaraz edo bietara gaztelaniaz baino gehiago” erantzun dutenak –hots, galdetegiko 0-10 bitarteko eskalan, 7-10 artean erantzun dutenak- “euskaraz” izeneko atalean bildu dira. “Beti edo gehienbat gaztelaniaz” eta “gaztelaniaz euskaraz edo bietara baino gehiago” erantzun dutenak –hots, galdetegian 0-3 artean erantzun dutenak-, “gaztelaniaz” atalean. Eta “biak” atalean agertzen dira euskaraz edo bietara gaztelaniaz bezainbeste egiten dutela diotenak –hots, galdetegian, 4-6 erantzun dutenak-. Batez besteko balioak ere kalkulatu dira, eta adierazle taulan, dagokion atalean ageri dira emaitzak.

Idatzizko erabileran, batez besteko balioak kalkulatu dira (item bakoitzean, gaztelania hutsean, euskara hutsean eta ele bietan agertzen diren portzentajeen batez bestekoak), bai hemen, baita adierazle taulan ere.

4.1. Hizkuntza paisaia eta irudi linguistikoa

AZPko langileek euren jardunaz emandako euskararen erabileraren inguruko datuei, fakultateetako eta campusetako ordezkariak hainbat alderdiri buruz emandakoa erantsi zaie (hizkuntza paisaia eta idatzizko irudi linguistikoa, baliabide informatikoak, idatzizko kanpo harremanak eta hizkuntza kudeaketa).

Honakoak zehazki fakultateetako eta campusetako ordezkariak galdetu zaizkien alderdiak.

1 Fakultateetako ordezkariak:

- **Zentroaren errotulazio orokorra:** Eraikinean, barruan nahiz kanpoan dauden errotulazioak: pertsonen joan-etorri handieneko espazioetan dauden seinaleak, errotulu eta informazio euskarri orokorrak. Ohikoenak dira: toki edota zerbitzuen identifikazio seinaleak, norabide seinaleak, igogailuetako ahots mezu automatikoak, eta Informazioa emateko panel elektronikoak.
- **Irudi korporatiboko elementuak:** Gutun azalak, orri buruak, zigiluak, bisita txartelak eta erabiltzen diren irudi korporatiboko bestelako euskarri eta papertegiko elementuak.
- **Ingurune digitala:** Zentroaren webguneak eta tramitazio telematikoak. Zentroaren webguneko atal finkoak eta dinamikoak, eta internet bidez eskainitako zerbitzu telematikoak.
- **Jendaurreko saio edota aurkezpenak:** Euskararen erabilera zentroak azken 12 hilabeteetan antolatutako jendaurreko saio edota aurkezpenetan.

2 Campusetako ordezkariak:

- **Hedabideen bitartez zabaldutako iragarkiak eta publizitatea:** idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideetan zein hizkuntzatan ageri diren Unibertsitatearen iragarkiak, sustapen kanpainak nahiz publizitatea
- **Hedabideen bitartez zabaldutako berriak:** idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideetan zein hizkuntzatan ageri diren Unibertsitatearen berriak.
- **Unibertsitatearen webguneak eta tramitazio telematikoak:** Unibertsitatearen webguneko atal finkoak eta dinamikoak, eta internet bidez eskainitako zerbitzu telematikoak.
- **Ingurune digitala:** Unibertsitatearen sare sozialak eta komunikaziorako aplikazio digitalak. Unibertsitatearen sare sozialak eta hartzaileekin komunikatzeko aplikazio telematikoak.

Ele bietako ereduaren indarra nabarmena da UPV/EHU-ren iruditerian, batez ere errotulazioan, esparru digitalean eta irudi korporatiboan.

Hizkuntza bat hautatzekotan, euskararen erabilera handiagoa da gaztelaniarena baino orokorrean eta erabateko euskarazko jarduna ematen da campusetatik hedabideen bidez zabaldutako berrietan, campusek kudeatzen duten Unibertsitatearen webgune eta tramitazio telematikoetan eta campusetatik kudeatzen diren Unibertsitatearen sare sozialak eta hartzaileekin komunikatzeko aplikazio telematikoak.

Jendaurreko saio eta ekitaldietan —aztertutako aldagai guztietatik hori da ahozko jardunarekin lotutako bakarra—, euskararen presentziak %74ko pisua hartzen du.

9. taula: campusetako eta fakultateetako solaskideek adierazitako hizkuntza egoera iruditerian, ingurune digitalean eta aurkezpen eta saioetan.

Datu iturria	Elementua	Hizkuntzen erabilera (%)				Oharrak
		Euskaraz	Elebietan	Gaztelaniaz	Guztira	
Iruditeria						
Fakultatea	Eraikineko errotulazio orokorraren hizkuntza egoera	1,8	97,3	1,0	100,0	Arte Ederren fakultatean, gaztelaniaz %10; Hezkuntza, Filosofia eta Antropologian euskaraz %20 eta informatikan %10.
Fakultatea	Irudi korporatiboko elementuen hizkuntza egoera	5,1	94,4	0,6	100,0	
Fakultatea	Zentroaren beraren papereko argitalpenen hizkuntza egoera	4,0	91,5	4,8	100,0	Argitalpenak zehaztuta eman dituzte
Campusa	Hedabideen bidez zabaldutako publizitatea	6,7	93,3	0,0	100,0	Gipuzkoak %20 euskaraz; gainerakoak %100 bietara
Campusa	Hedabideen bidez zabaldutako berriak	0,0	100,0	0,0	100,0	
Ingurune digitala						
Campusa	Unibertsitatearen webgune eta tramitazio telematikoak	0,0	100,0	0,0	100,0	
Fakultatea	Zentroaren webguneak eta tramitazio telematikoak	0,0	97,5	2,5	100,0	
Campusa	Unibertsitatearen sare sozialak eta hartzaileekin komunikatzeko aplikazio telematikoak	0,0	100,0	0,0	100,0	Arabakoak ez du erantzun. "Prensa"-ri dagokio.
Jendaurreko saioak						
Fakultatea	Jendaurreko ekitaldiak	74,0				17 zentrok erantzun dute

Iturria: Siadeco, 2020.


4.2. Ahozko zerbitzu hizkuntza

4.2.1. Telefono bidezko harremanak

Telefonoko harremanak ere hartu dira aztergai. AZPko langileen zerbitzuak jasotzen dituzten kolektiboekin telefonozko erlazioa duten langileek eman dute informazioa: beharginen %82k. Honako aldagai hauek erabili dira:

- Langileen lehen hitza: telefonoa hartzean zein hizkuntzatan hasten diren langileak
- AZPko langileen zerbitzuak jasotzen dituzten kolektiboekin (unibertsitate barruko zein kanpokoak) lehen hitza: telefonoz deitzean zein hizkuntzatan hasten diren eurak
- Solasaldietako hizkuntza: telefonozko solasaldiak (hasieratik bukaerara) zein hizkuntzatan izaten diren

12. grafikoa: zerbitzua emateko telefonoko harremanetako hizkuntza erabilera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

10. taula: telefonoz harrera egiteko erabilitako hasierako hizkuntza campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).


		Gaztelaniaz nagusiki	Batzuetan gazt. besteetan eusk/eleb	Euskaraz/elebietan nagusiki
Campusa	Araba	37,5	11,5	51,0
	Gipuzkoa	15,3	10,2	74,5
	Bizkaia	41,5	16,9	41,6
	Guztira	35,6	14,8	49,6
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	13,4	9,6	76,9
	Atal elebiduna	28,0	17,8	54,2
	Bestelakoa	46,9	11,9	41,2
	Guztira	35,6	14,8	49,6
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	12,1	11,5	76,4
	Beste fak.	36,1	14,8	49,1
	Zerb. orok.	37,1	15,1	47,9
	Guztira	35,6	14,8	49,6

Iturria: Siadeco, 2020.

Langileen lehen hitza aztertutik, %49k adierazi dute euskaraz hartzen dutela telefonoa, eta beste %15ek, euskaraz eta erdaraz; %35ek, erdara hutsez. Campusari dagokionez, Gipuzkoakoan hartu ohi dute telefonoa euskaraz gehien (%74 euskaraz/elebietan nagusiki); gutxien Bizkaikoan (%41). Atalaren hizkuntza izaerari jarraiki, euskarazkoetan dago errotuen telefonoa euskaraz hartzea (%77), eta zerbitzu-motari dagokionez, hezkuntza fakultateetan (%76).

Langileen hizkuntza gaitasuna giltzarri da telefonoan lehen hitza euskaraz egiteko. Euskaraz *ongi* hitz egiten dutela dioten beharginek hartzen dute telefonoa maizenik euskaraz/elebitan nagusiki (%77). Hortik behera, maila jaistearekin, nabarmen gutxitzen da telefonoa euskaraz hartzeko ohitura; adibidez, *nahiko ongi* mintzo direnen %46 hasten dira euskaraz/elebitan telefonotik, eta *hitz batzuk* dakitenen %7.

13. grafikoa: grafikoa. Langileen telefonoko lehen hitza haien ahozko hizkuntza gaitasun aitortuaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

Zerbitzuak jasotzen dituzten kolektiboetako pertsonak lehen hitza zein hizkuntzatan egiten dieten telefonoz galdetuta, 3 langiletik 1ek (%37k) adierazi dute batzuetan gaztelaniaz eta beste batzuetan euskaraz edo elebitan egiten dietela haiek, 3tik beste 1ek (%37) gaztelaniaz egiten dietela nagusiki, eta lau langiletik batek (%26) adierazi dute haiek euskaraz edo elebitan nagusiki egiten dietela.

Zenbakiak campusa, atalaren hizkuntza izaera eta zentro-motaren arabera aztertuta, Gipuzkoako campusean euskaraz/elebitan nagusiki egiten diete 2tik 1ek (%49), euskarazko ataletan %38k eta hezkuntza fakultateetan %54k. Beste aldean, lehen hitza gaztelaniaz nagusiki egiten diete Bizkaiko campuseko AZPko langileen %43ri. Indize hori %48koa da bestelako izaera duten ataletan eta %39koa bestelako fakultateetan.

11. taula: AZPko langileen harrera telefonoz egitean, zerbitzua jasotzen duten kolektiboen lehen hitza campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		Gaztelaniaz nagusiki	Batzuetan gazt. besteetan eusk/eleb.	Euskaraz/elebitan nagusiki
Campusa	Araba	39,0	34,4	26,6
	Gipuzkoa	15,9	34,7	49,4
	Bizkaia	43,0	38,1	19,0
	Guztira	36,9	36,9	26,2
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	22,8	39,4	37,9
	Atal elebiduna	29,0	38,9	32,1
	Bestelakoa	47,7	34,3	18,0
	Guztira	36,9	36,9	26,2
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	5,4	40,4	54,2
	Beste fak.	39,6	34,3	26,2
	Zerb. Orok.	37,5	38,6	23,9
	Guztira	36,9	36,9	26,2

Iturria: Siadeco, 2020.

Solasaldiak osorik hartuta, lehen hitza egin ostean, zein hizkuntzatan izaten dituzten solasaldiak AZPko langileek zerbitzuak jasotzen dituztenekin? Erdiak (%50) gaztelaniaz nagusiki aritzen dira telefonoz, 10etik 3 (%30) batzuetan gaztelaniaz eta beste batzuetan euskaraz eta bostetik bat (%20) euskaraz nagusiki (%20). Kontuan izatekoa da datu hori baxuagoa dela lehen hitza euskaraz egiten duten zerbitzu hartzaileena baino: sei puntu beherago dago. Datu zehatzagoak aztertuta ere, jaitiera hori ageri da campus guztietan. Aldiz, euskarazko izendatutako ataletan eta hezkuntza fakultateetan pareko mailan daude zerbitzu lehen hitza euskaraz nagusiki eta elkarrizketa osotasunean hartuta euskaraz nagusiki egiten dutenen portzentajeak (%38 eta %36 euskarazko atalen kasuan eta %54 eta %56 hezkuntza fakultateetan, hurrenez hurren).


12. taula: telefono bidez izandako komunikazioak osotasunean hartuta erabilitako hizkuntza campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		Gaztelaniaz nagusiki	Batzuetan gazt. besteetan eusk/eleb.	Euskaraz/elebietan nagusiki
Campusa	Araba	47,3	33,7	19,0
	Gipuzkoa	22,1	35,0	42,9
	Bizkaia	58,9	27,6	13,4
	Guztira	50,0	29,9	20,1
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	24,0	40,4	35,6
	Atal elebiduna	41,3	33,0	25,7
	Bestelakoa	63,0	25,2	11,9
	Guztira	50,0	29,9	20,1
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	19,7	24,6	55,7
	Bestelako fak.	53,3	26,9	19,8
	Zerb. Orok.	49,9	32,6	17,5
	Guztira	50,0	29,9	20,1

Iturria: Siadeco, 2020.

Langileek lehen hitza zein hizkuntzatan egiten duten, alde handia dago horren arabera solasaldiak osorik aztertzean. Telefonoa beti euskaraz hartzen duten langileek izaten dituzte euskarazko solasaldi gehien: %39k. Batzuetan euskaraz eta beste batzuetan gaztelaniaz hasten direnek, askoz gutxiago: %5ek.

14. grafikoa: telefonoko solasaldien hizkuntza, langileek lehen hitza egiteko erabilitako hizkuntzaren arabera (%)




Iturria: Siadeco, 2020.

4.2.2. Aurrez aurreko harremanak

Aurrez aurreko harremanak ere aztertu dira, erlazio horiek izaten dituzten langileei galdetuta (%82), aldagai hauen bidez:

- Langileen lehen hitza: aurrez aurreko harremanetan nola hasten diren hizketan langileak
- Zerbitzu hartzailearen lehen hitza: aurrez aurreko harremanetan nola hasten diren hizketan zerbitzuak jasotzen dituztenak
- Solasaldietako hizkuntza: aurrez aurreko solasaldiak hasieratik bukaerara zein hizkuntzatan izaten dituzten
- Euskarazko harreman eskaerari erantzuna: euskaraz nahiago dutela adierazi dutenek zein hizkuntzatan jasotzen duten aurrez aurreko zerbitzua

15. grafikoa: aurrez aurreko harremanetako hizkuntza erabilera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

Langileek lehen hitza zein hizkuntzatan egiten duten galdetu da, telefonozko hartu-emanetan bezala. Lehen hitza euskaraz egiten dutela adierazi dute zerbitzu hartzaileak aurrez aurre agurtzen dituzten langileen %42k, %20k batzuetan gaztelaniaz eta besteetan euskaraz edo elebitan agurtzen dituzte eta %37k gaztelaniaz nagusik hartu ohi dituzte. Telefonoko lehen hitzarekin alderatuta, 7 puntu txikiagoa da euskarazko lehen hitza. Datuen azterketa zehatzago bat eginda, jaitsiera hori orokorra da campus eta hizkuntza izaera ezberdinetako atal guztietan, baina zentro-mota kontuan izanda, hezkuntza fakultateetan maila beretsuan mantentzen da bai telefonozko eta baita aurrez aurreko euskarazko lehen hitza (%76 eta %77 hurrenez hurren).


13. taula: aurrez aurre harrera egiteko erabilitako hasierako hizkuntza campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		Gaztelaniaz nagusiki	Batzuetan gazt. besteetan eusk./eleb.	Euskaraz/elebitan nagusiki
Campusa	Araba	36,1	19,2	44,7
	Gipuzkoa	15,6	14,5	69,9
	Bizkaia	43,9	23,0	33,2
	Guztira	37,0	20,7	42,2
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	17,1	17,7	65,2
	Atal elebiduna	30,9	21,6	47,6
	Bestelakoa	46,1	20,1	33,8
	Guztira	37,0	20,7	42,2
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	11,0	11,5	77,4
	Beste fak.	38,7	18,6	42,7
	Zerb. Orok.	38,0	23,2	38,8
	Guztira	37,0	20,7	42,2

Iturria: Siadeco, 2020.

Telefonozkoan bezalaxe, aurrez aurreko arretan ere alde handia dago hizkuntza gaitasunaren arabera lehen hitza euskaraz egiteari dagokionez. Euskaraz *ongi* moldatzen direla diotenak hartuta, hirutik bik (%65) euskaraz egiten dute lehen hitza; *nahiko ongi* egiten dutenetan, hamarretik lauk (%42).

16. grafikoa: langileen aurrez aurreko lehen hitza haien hitz egiteko gaitasun aitortuaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

Zerbitzu hartzaileen lehen hitza begiratzin bada, ez da alde nabarmenik ageri telefonotik aurrez aurrekora: langileek emandako informazioaren arabera, zerbitzu hartzaileen %27 hasten dira euskaraz aurrez aurreko solasaldietan, telefonoan baino puntu bat gehiago. %37k gaztelaniaz hasten dute solasaldia. Hezkuntza fakultatean eta Gipuzkoako campusean erabiltzen dute zerbitzu hartzaileek euskara gehien aurrez aurreko solasaldiak hasteko, %71k eta %54k hurrenez hurren.

14. taula: zerbitzua jasotzen duten kolektiboen lehen hitza aurrez aurrekoan campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		Gaztelaniaz nagusiki	Batzuetan gazt. besteetan eusk./eleb.	Euskaraz/elebietan nagusiki
Campusa	Araba	28,6	45,9	25,5
	Gipuzkoa	12,4	33,8	53,8
	Bizkaia	47,1	33,2	19,7
	Guztira	37,6	35,0	27,4
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	21,9	33,3	44,8
	Atal elebiduna	31,7	35,8	32,5
	Bestelakoa	45,9	34,3	19,8
	Guztira	37,6	35,0	27,4
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	4,1	24,7	71,2
	Beste fak.	38,1	32,7	29,2
	Zerb. Orok.	40,0	37,7	22,3
	Guztira	37,6	35,0	27,4

Iturria: Siadeco, 2020.

Aurrez aurreko solasaldiak osorik hartuta, euskarazko solasaldien portzentajea bost puntu baxuagoa da zerbitzu hartzaileek lehen hitza egiteko erabiltzen dutena baino. %22 solasaldi izaten dira euskaraz, beharginen arabera; %48, gaztelaniaz nagusiki. Telefonozko solasaldien aldean, bi puntu gehiago dira euskarazkoak.

Hezkuntza fakultateak ageri erabilera handieneko gisa hemen ere (%69).


15. taula: aurrez aurre izandako komunikazioak osotasunean hartuta erabilitako hizkuntza campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		Gaztelaniaz nagusiki	Batzuetan gazt. besteetan eusk./eleb.	Euskaraz/elebietan nagusiki
Campusa	Araba	43,2	35,0	21,7
	Gipuzkoa	19,8	32,2	48,0
	Bizkaia	57,4	27,8	14,8
	Guztira	48,0	29,6	22,4
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	24,1	35,8	40,2
	Atal elebiduna	40,4	30,8	28,8
	Bestelakoa	59,2	27,6	13,2
	Guztira	48,0	29,6	22,4
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	12,7	18,2	69,2
	Beste fak.	47,9	30,1	22,0
	Zerb. Orok.	51,2	30,2	18,6
	Guztira	48,0	29,6	22,4

Iturria: Siadeco, 2020.

Lehen hitza euskaraz egin ohi duten langileek eduki ohi dituzte aurrez aurreko solasaldi gehiago euskaraz: agurra nagusiki euskaraz egiten duten langileek, erdiek (%51).

17. grafikoa. aurrez aurreko solasaldien hizkuntza langileek lehen hitza erabilitako hizkuntzaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

Izan telefonoz ala aurrez aurre, zerbitzu hizkuntza gisa ahozko harremana euskaraz nahiago dutenei nola erantzuten zaien, 10etik 7ri euskaraz erantzuten diete, langileen arabera. %9ri euskaraz batzuetan eta gaztelaniaz besteetan. Bostetik biri, %21eri, gaztelaniaz nagusiki erantzuten diete aurrez aurreko harremanetan, nahiz eta zerbitzu hartzaileak euskarazko arreta nahi izan. Bizkaiko campusean (%25), bestelako izaera duten ataletan (%28) eta bestelako fakultateetan (%26) da ohikoena horrelako egoerak gertatzea, langileen esanetan.

16. taula: oro har, izan telefonoz edo aurrez aurre, harremana euskaraz nahiago dutenei erantzuteko erabilitako hizkuntza campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		Gaztelaniaz nagusiki	Batzuetan gazt. besteetan eusk./eleb.	Euskaraz/elebietan nagusiki
Campusa	Araba	18,8	8,9	72,4
	Gipuzkoa	10,2	6,8	82,9
	Bizkaia	25,3	10,4	64,3
	Guztira	21,3	9,5	69,2
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	7,3	5,8	86,8
	Atal elebiduna	16,7	8,8	74,4
	Bestelakoa	28,2	10,7	61,2
	Guztira	21,3	9,5	69,2
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	5,0	6,4	88,5
	Beste fak.	26,1	7,0	66,9
	Zerb. Orok.	18,9	11,6	69,5
	Guztira	21,3	9,5	69,2

Iturria: Siadeco, 2020.

4.2.3. Aurkezpenak eta saioak

Zerbitzuak eskaintzeko burutzen dituzten aurkezpen eta saioetan zein hizkuntza erabiltzen duten ere galdetu zaie AZPko langileei. 3tik ia 2k (%63) gaztelaniaz nagusiki, 5etik 2k (%20) euskaraz nagusiki eta %17k batzuetan gaztelaniaz eta besteetan euskaraz edo elebitan egiten dutela adierazi dute. Datuak zehatzago aztertuz, aurkezpen eta saioetan ere euskararen erabilera altuagoa da hezkuntza fakultateetan (%62), euskarazko ataletan (%40) eta Gipuzkoako campusean (%37).

17. taula: zerbitzu haratzaileei zuzendutako bilera edota saioetean erabilitako hizkuntza campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		Gaztelaniaz nagusiki	Batzuetan gazt. besteetan eusk./eleb.	Euskaraz/elebitan nagusiki
Campusa	Araba	57,3	22,4	20,3
	Gipuzkoa	37,2	25,9	36,9
	Bizkaia	72,9	12,6	14,4
	Guztira	63,1	16,9	20,0
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	34,9	24,6	40,5
	Atal elebiduna	50,3	20,4	29,3
	Bestelakoa	81,4	11,9	6,7
	Guztira	63,1	16,9	20,0
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	5,9	32,0	62,2
	Bestelako fak.	59,0	18,7	22,3
	Zerb. Orok.	70,4	14,5	15,1
	Guztira	63,1	16,9	20,0

Iturria: Siadeco, 2020.

4.3. Idatzizko zerbitzu hizkuntza

Aztertu da AZPko langileen zerbitzuak jasotzen dituzten kolektiboekiko erlazioan zein den hizkuntzen erabilera: bai euretatik jasotako idatzietakoa eta baita eurei bidalitakoena ere; euskaraz iritsitako idatziei erantzuteko erabilitako hizkuntzarengatik ere galdetu zaie langileei. Ondorengo aldagaiak aztertu dira, beraz:

- Zerbitzuak jasotzen dituzten kolektibo horiek zein hizkuntzatan igortzen dituzten idazkiak unibertsitatera
- AZPko langileek zein hizkuntzatan bidaltzen dizkieten agiriak eurei
- Idazkiak euskaraz aurkeztu dituztenei nola erantzuten dieten AZPko langileek

Jasotako idatzien hizkuntza aztertuz, 2tik 1 gaztelania hutsean iristen da (%50), 3tik 1 ele bietan (%30) eta 5etik 1 (%19) euskara hutsean. Datuak xeheago aztertzen badira, Campusen arabera, Gipuzkoan euskara hutsean jasotzen dira idazkien %29, Bizkaian %19 eta Araban %16. Atalen hizkuntza izaera aztertuta, euskarazko ataletan euskara hutsean jasotzen dira idazkien %31, atal elebidunetan %21 eta bestelakoetan %14. Zentro-motaren araberrako azterketa eginda, hezkuntza fakultateetan euskara hutsean jasotzen dira idatzien %34, zerbitzu orokorretan %19 eta bestelako fakultateetan %17.

AZPko langileek bidalitako idatzien hizkuntza aztertuz, gaztelania hutsean dira jasotakoena baino gutxiago, %48, 3tik 1 ele bietan (%36) eta euskara hutsean %16. Datuak xeheago aztertzen badira, Campusen arabera, Gipuzkoan euskara hutsean bidaltzen dira idazkien %24, Bizkaian %13 eta Araban %16. Atalen hizkuntza izaera aztertuta, euskarazko ataletan euskara hutsean bidaltzen dira idazkien %25, atal elebidunetan %18 eta bestelakoetan %11. Zentro-motaren araberrako azterketa eginda, hezkuntza fakultateetan euskara hutsean jasotzen dira idatzien %37, zerbitzu orokorretan %14 eta bestelako fakultateetan %16.

Zerbitzu hartzaileek euskaraz aurkeztutako agiriak nola erantzuten dituzten galdetu zaie AZPko langileei. Euskara hutsean erantzuten diete horiei %45 ingurutan, %30 gaztelania hutsean eta %25 elebietan. Badago aldea campusaren arabera: Gipuzkoako campuseko langileek joera handiagoa dute euskara hutsean erantzuteko (%54). Euskaraz idatzi dutenei gaztelaniaz erantzutea, gertaera hori, atalaren hizkuntza izaerari begiratuta, bestelako izaera dutenetan gertatzen da nagusiki (%36). Zentro-motari jarraiki begiraturaz gero datu horiei, joera da hezkuntza fakultateetan gaztelania hutsezko erantzunaren portzentajea baxuagoa izatea, %18koa.

18. taula: AZPko langileek zerbitzua ematen dien kolektiboekiko idatzizko harremanetako batez besteko hizkuntza (%).

		Jasotako idatzien hizkuntza			Bidalitako idatzien hizkuntza			Euskaraz iritsitakoiei erantzuteko hizkuntza		
		Gazt. hutsean %	Eusk. hutsean %	Elebjetan %	Gazt. hutsean %	Eusk. hutsean %	Elebjetan %	Gazt. hutsean %	Eusk. hutsean %	Elebjetan %
Campusa	Araba	46,7	19,6	33,7	51,8	16,6	31,6	30,7	45,1	24,2
	Gipuzkoa	34,4	28,8	36,7	32,1	24,0	43,9	21,7	54,4	23,9
	Bizkaia	56,4	16,0	27,6	52,5	13,1	34,4	32,6	41,9	25,5
	Guztira	50,6	19,1	30,3	48,2	15,8	36,0	30,1	44,9	25,0
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	43,3	31,7	25,1	28,5	25,6	45,9	17,2	59,1	23,7
	Atal elebiduna	46,3	21,7	32,0	41,8	18,3	39,8	26,3	47,4	26,4
	Bestelakoa	56,6	14,5	28,9	58,2	11,6	30,2	36,1	40,4	23,5
	Guztira	50,6	19,1	30,3	48,2	15,8	36,0	30,1	44,9	25,0
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	25,8	34,4	39,8	27,5	37,1	35,3	17,7	47,8	34,5
	Beste fak.	45,6	17,6	36,8	47,0	16,2	36,8	31,0	43,9	25,1
	Zerb. Orok.	56,4	19,0	24,6	50,8	13,8	35,4	30,3	45,5	24,2
	Guztira	50,6	19,1	30,3	48,2	15,8	36,0	30,1	44,9	25,0

Iturria: Siadeco, 2020.

5. Lan hizkuntza


Kanpora begirako jarduna azterturik, EHU/UPVko AZPko langileen barruko jardunari erreparatu zaio: nolakoa den hizkuntzen egoera eta kudeaketa. Jardunari buruzko datuak ez ezik, iritzia ere eskatu zaie bai langileei eta baita fakultate eta campusetako solaskideei ere.

5.1. Ahozkoa

Ahozko lan hizkuntza aztertuta, bestetik, hiru aldagairi buruz galdetu zaie langileei:

- UPV/EHUko atal/zerbitzu bereko edo beste atal/zerbitzuetako lankideen arteko ahozko harremanak
- Lan bileretako hizkuntza: zein hizkuntzatan egiten dituzten laneko bilerak
- Atalburu/zerbitzuburuarekin nola aritzen diren langileak

18. grafikoa: barneko ahozko komunikazioko hizkuntza erabilera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

UPV/EHko atal/zerbitzu bereko edo beste atal/zerbitzuetako lankideekin zein hizkuntzatan egiten duten galdetu zaie AZPko langileei. Langileen %61ek diote nagusiki gaztelaniaz aritzen direla lankideekin. Nagusiki euskaraz aritzen dira langileen %16.

Datuak zehaztasun gehiagorekin aztertuz, harreman mota hauetan euskararen erabilera altuagoa da hezkuntza fakultateetan (%52), euskarazko ataletan (%40) eta Gipuzkoako campusean (%35).

19. taula: lankideekiko ahozko hizkuntza erabilera campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		Gaztelaniaz nagusiki	Batzuetan gazt. besteetan eusk./eleb.	Euskaraz/elebietan nagusiki
Campusa	Araba	60,0	25,8	14,2
	Gipuzkoa	32,5	32,8	34,7
	Bizkaia	70,4	18,7	10,9
	Guztira	61,1	22,6	16,3
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	32,8	27,2	40,0
	Atal elebiduna	56,6	24,7	18,7
	Bestelakoa	69,4	19,7	10,9
	Guztira	61,1	22,6	16,3
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	21,7	26,1	52,2
	Beste fak.	60,8	21,4	17,8
	Zerb. Orok.	64,4	23,3	12,4
	Guztira	61,1	22,6	16,3

Iturria: Siadeco, 2020.

Hizkuntza gaitasunaren arabera begiratuta: gaitasun *ona* edo *nahiko ona* dutenen 10etik 4k pasatxo egiten dute euskaraz lankideekin. Ele bietako ereduak indar handiagoa du kasu horretan, lan bileretan baino: %60k diote bi hizkuntzak tartekatzen dituztela lankideekin. Emakumezkoen euskararen erabilera gizonezkoena baino altuagoa da, haien %19k egiten dute euskaraz nagusiki eta hauen %10ek. Zenbat eta adinean aurrerago joan behera egiten du euskararen erabilerak. Langileak egiaztatutako hizkuntza eskakizunari jarraiki, zenbat eta maila altuagoa izan egiaztatutakoa euskararen erabilera handiagoa aitortzen dute inkestatuek, euskaraz nagusiki egiten dute lehenengoa egiaztatua duten langileen %8k eta laugarrena duten langileen %48k.

20. taula: lankideekiko ahozko hizkuntza erabilera euskara gaitasunaren, sexuaren, adinaren eta egiaztatutako hizkuntza eskakizunaren arabera (%).

		Gaztelaniaz nagusiki	Batuetan gazt. besteetan eusk./eleb.	Euskaraz nagusiki
Hitz egin	Ezer ez	100	0	0
	Hitz batzuk	96,3	3,7	,0
	Zertxobait	90,2	8,4	1,4
	Nahikoa ongi	63,0	28,2	8,8
	Ongi	34,6	31,8	33,6
	Zehaztu gabe	78,1	10,6	11,3
	Guztira	61,1	22,6	16,3
Sexua	Emakumezkoa	57,6	23,2	19,1
	Gizonezkoa	67,6	21,4	10,9
	Guztira	61,1	22,6	16,3
Adina	<=35 urte	48,0	26,1	25,9
	36-45 urte	58,4	26,8	14,8
	46-55 urte	59,7	22,7	17,6
	>55 urte	66,4	18,9	14,7
	Guztira	61,1	22,6	16,3
Langileak egiaztatutako HE	0	87,4	6,5	6,0
	1	78,7	13,4	7,9
	2	67,2	21,5	11,3
	3	47,1	30,1	22,8
	4	28,0	24,1	47,9
	Guztira	61,1	22,6	16,3

Iturria: Siadeco, 2020.

Lanari lotuta langileek garatzen dituzten bilerak kontuan izanda, aztertutako aurreko harreman-motan baino gehiago dira nagusiki gaztelaniaz egiten dutela diotenak, 10etik 7 pasatxo. Nagusiki euskaraz aritzen dira langileen %13.

Datuak zehaztasun gehiagorekin aztertuz, harreman mota hauetan euskararen erabilera altuagoa da hezkuntza fakultateetan (%61), euskarazko ataletan (%50) eta Gipuzkoako campusean (%31).

21. taula: lan bileretako ahozko hizkuntza erabilera campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		Gaztelaniaz nagusiki	Batzuetan gazt. besteetan eusk./eleb.	Euskaraz/ elebietan nagusiki
Campusa	Araba	72,5	14,3	13,2
	Gipuzkoa	47,7	21,3	31,0
	Bizkaia	81,6	11,2	7,2
	Guztira	73,2	13,7	13,0
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	37,8	12,2	50,0
	Atal elebiduna	67,3	16,8	15,9
	Bestelakoa	84,5	10,3	5,2
	Guztira	73,2	13,7	13,0
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	25,4	13,3	61,3
	Beste fak.	71,5	15,8	12,6
	Zerb. Orok.	77,9	12,3	9,8
	Guztira	73,2	13,7	13,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Hizkuntza gaitasunaren arabera begiratuta, lankideen arteko ahozko harremanetan baino baxuagoa da euskararen erabilera lan bileretan: gaitasun *ona* edo *nahiko ona* dutenen laurdenak eskas egiten dute euskaraz. Batzuetan euskaraz besteetan gaztelaniaz ereduak indar handiagoa du kasu horretan, lankideekiko ahozko harremanetan baino: 5etik 1ek dio bi hizkuntzak tartekatzen dituztela. Langileak egiaztatutako hizkuntza eskakizunari jarraiki, zenbat eta maila altuagoa izan egiaztatutakoa euskararen erabilera handiagoa aitortzen dute inkestatuek, euskaraz nagusiki egiten dute lehenengoa egiaztatua duten langileen %6k eta laugarrena duten langileen %32k.

22. taula: lan bileretako ahozko hizkuntza erabilera euskara gaitasunaren eta egiaztatutako hizkuntza eskakizunaren arabera (%).

		Gaztelaniaz nagusiki	Batuetan gazt. besteetan eusk./eleb.	Euskaraz nagusiki
Hitz egin	Ezer ez	93,8	6,2	0,0
	Hitz batzuk	89,7	10,3	0,0
	Zertxobait	90,8	7,0	2,2
	Nahikoa ongi	77,7	11,0	11,3
	Ongi	56,3	20,3	23,4
	Zehaztu gabe	66,4	18,9	14,7
	Guztira	73,2	13,7	13,0
Langileak egiaztatutako HE	0	87,1	9,9	3,0
	1	84,8	8,6	6,6
	2	80,1	10,5	9,4
	3	64,4	17,3	18,3
	4	45,2	22,6	32,2
	Guztira	73,2	13,7	13,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Atal edo zerbitzuko buruarekin langileen ahozko harremanak ere aztertu dira inkestan. Nagusiki gaztelaniaz egiten dutela diote 10etik 7k pasatxo. Nagusiki euskaraz aritzen dira langileen %18, beraz euskararen erabilera apur bat gora egiten du gainerako ahozko harremanen aldean.

Datuak zehaztasun gehiagorekin aztertuz, harreman mota hauetan euskararen erabilera altuagoa da euskarazko ataletan (%68), hezkuntza fakultateetan (%51) eta Gipuzkoako campusean (%42).

23. taula: atal/zerbitzuburuarekin erabilitako hizkuntza campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		Gaztelaniaz nagusiki	Batzuetan gazt. besteetan eusk./eleb.	Euskaraz/elebietan nagusiki
Campusa	Araba	70,6	10,8	18,6
	Gipuzkoa	48,4	9,2	42,5
	Bizkaia	80,4	8,6	11,0
	Guztira	72,3	9,0	18,6
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	25,6	6,4	68,0
	Atal elebiduna	68,0	11,1	20,9
	Bestelakoa	82,7	6,9	10,4
	Guztira	72,3	9,0	18,6
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	33,3	15,7	51,1
	Beste fak.	71,0	10,6	18,5
	Zerb. Orok.	76,5	7,3	16,2
	Guztira	72,3	9,0	18,6

Iturria: Siadeco, 2020.

Hizkuntza gaitasunaren arabera begiraturata, lankideekiko ahozko harremanetakoa baina maila altuagoan ematen da euskararen erabilera atal edo zerbitzuko buruarekikoa. Gaitasun *ona* edo *nahiko ona* dutenen erdiek (%49) egiten dute euskaraz. Langileak egiaztatutako hizkuntza eskakizunari jarraiki, euskaraz nagusiki egiten dute lehenengoa egiaztatua duten langileen %9k eta laugarrena duten langileen %53k.

24. taula: atal/zerbitzuburuarekin erabilitako hizkuntza euskara gaitasunaren, sexuaren, adinaren eta langileak egiaztatutako hizkuntza eskakizunaren arabera (%).

		Gaztelaniaz nagusiki	Batzuetan gazt. besteetan eusk./eleb.	Euskaraz nagusiki
Hitz egin	Ezer ez	100,0	,0	,0
	Hitz batzuk	96,4	3,6	,0
	Zertxobait	93,3	4,7	2,1
	Nahikoa ongi	70,8	13,4	15,8
	Ongi	55,5	10,5	34,0
	Zehaztu gabe	81,9	,0	18,1
	Guztira	72,3	9,0	18,6
Sexua	Emakumezkoa	69,6	10,4	20,0
	Gizonezkoa	77,5	6,4	16,1
	Guztira	72,3	9,0	18,6
Adina	<=35 urte	60,7	4,6	34,7
	36-45 urte	71,0	12,1	16,9
	46-55 urte	71,4	9,2	19,4
	>55 urte	75,9	7,0	17,1
	Guztira	72,3	9,0	18,6
Langileak egiaztatutako HE	0	94,1	1,3	4,6
	1	86,8	3,8	9,4
	2	76,7	10,9	12,4
	3	61,3	11,4	27,4
	4	44,4	2,2	53,4
	Guztira	72,3	9,0	18,6

Iturria: Siadeco, 2020.

Euren atalburu/zerbitzuberuen euskara gaitasunagatik ere galdegin zaie langileei. Eraitza orokorrak aztertuta, euskaraz ongi hitz egiteko gai dira 3tik 2. Nahiko ongi egiten dute %10ek, ulertzen ez dutenak %8aren bueltan kokatzen dira eta gainontzeko %15aren informaziorik ez daukagu. Alde nabarmenenak atalaren hizkuntza izaeraren arabera emaitzetan ditugu, non euskarazko ataletan 10etik ia 9k (%87) dute euskaraz hitz egiteko gaitasuna eta bestelako ataletan, aldiz, erdiek (%54).

25. taula: atal/zerbitzuberuaren euskara gaitasuna campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%)

		Bai, euskaraz hitz egiteko gai da	Ulertu egiten du, baina ez daki hitz egiten	Ez, ez du ulertzen	Zehaztu gabe/ ez dagokio	Guztira
		%	%	%	%	%
Campusa	Araba	69,1	8,1	8,7	14,2	100,0
	Gipuzkoa	76,4	11,2	6,8	5,6	100,0
	Bizkaia	63,3	11,1	7,7	17,9	100,0
	Guztira	66,8	10,7	7,7	14,9	100,0
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	87,2	4,4	5,7	2,8	100,0
	Atal elebiduna	75,8	10,2	4,5	9,5	100,0
	Bestelakoa	54,0	11,9	11,6	22,5	100,0
	Guztira	66,8	10,7	7,7	14,9	100,0
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	87,7	3,6	2,1	6,7	100,0
	Beste fak.	68,6	10,4	9,2	11,8	100,0
	Zerb. Orok.	63,7	11,5	7,0	17,8	100,0
	Guztira	66,8	10,7	7,7	14,9	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Euskal Herriko Unibertsitateko AZPko langileen beste eragile batzuekin dituzten harremanak ere aztertu dira; alegia, herritar banakoekin ez, baizik eta herri erakundeekin eta enprekin dauzkaten harremanak.

Zehazki, aztertu da batetik langileak zein hizkuntzatan jarduten diren ahoz beste erakunde publikoetako beharginekin, eta bestetik, bestelako enpresa eta erakunde pribatuetako beharginekin.

Erakundeekin ahoz nola aritzen diren, lehenik eta behin adierazi harreman mota hau badutela diotenak 10etik 4 eskas direla (%38). Gaztelaniazko jardunak pisu txikiagoa du (%45) unibertsitate barruko lankideekiko harremanetan baino, eta handiagoa da euskarazko jarduna (%37). Campusari jarraiki, Gipuzkoakoan du euskaraz erabilerarik handiena, 3tik 2 (%66). Pareko eraitza azaltzen dute euskarazko atalek (%64) eta hezkuntza fakultateek (%66).

26. taula: EAEko erakunde publikoekin ahozko komunikazioan erabilitako hizkuntza campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		Gaztelaniaz nagusiki	Batzuetan gazt. besteetan eusk./eleb.	Euskaraz/ elebrietan nagusiki
Campusa	Araba	51,8	26,5	21,7
	Gipuzkoa	19,9	13,7	66,5
	Bizkaia	51,3	18,7	30,0
	Guztira	44,6	18,6	36,8
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	12,6	23,8	63,6
	Atal elebiduna	41,2	14,2	44,6
	Bestelakoa	53,9	22,2	23,9
	Guztira	44,6	18,6	36,8
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	16,7	16,7	66,5
	Beste fak.	46,1	20,0	33,8
	Zerb. Orok.	45,8	18,0	36,2
	Guztira	44,6	18,6	36,8

Iturria: Siadeco, 2020.

UPV/EHUK kontratatutako edo unibertsitatearentzat lan egiten duten enpresa edo entitate pribatuetako beharginekin ahoz nola aritzen diren, lehenik eta behin adierazi harreman mota hau badutela diotenak 10etik 6 direla (%64). Gaztelaniazko jardunak pisua irabazten du hemen (%74), eta txikiagoa da euskarazko jarduna (%10). Euskararen erabilerarik altuetan euskarazko ataletan ematen da (%28).

27. taula: enpresa pribatuekin ahozko komunikazioan erabilitako hizkuntza campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		Gaztelaniaz nagusiki	Batzuetan gazt. besteetan eusk./eleb.	Euskaraz/ elebrietan nagusiki
Campusa	Araba	75,7	18,0	6,3
	Gipuzkoa	43,6	33,5	22,9
	Bizkaia	82,7	11,1	6,3
	Guztira	73,7	16,6	9,7
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	42,0	30,4	27,6
	Atal elebiduna	67,7	17,8	14,6
	Bestelakoa	82,9	14,0	3,1
	Guztira	73,7	16,6	9,7
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	47,9	30,7	21,4
	Beste fak.	75,3	16,2	8,5
	Zerb. Orok.	74,4	15,8	9,7
	Guztira	73,7	16,6	9,7


Iturria: Siadeco, 2020

5.2. Idatzizkoa

Idatzizko barne komunikazioa begiratuta, batetik, hiru aldagairi buruz galdetu zaie langileei:

- Unibertsitate barnerako agiri eta dokumentuak
- Lankideekiko komunikazio ez formalerako oharrak
- Lan bileretako dokumentu idatziak (deialdiak, aktak, txostenak...)

19. grafikoa: idatzizko barne komunikazioko hizkuntza erabilera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

Lan bileretako agiriak zein hizkuntzatan edukitzen dituzten, %8 langilek adierazi dute euskaraz edukitzen dituztela dokumentuak, eta hamarretik ia lauk (%38) euskaraz eta erdaraz. Erdiek (%54), gaztelaniaz bakarrik eduki ohi dituzte bileretako dokumentuak.

Unibertsitate barnerako agiri eta dokumentuak zein hizkuntzatan edukitzen dituzten galdetuta, ele bietan aukera gailentzen da (%56), euskara hutsekoak %9 direlarik. Kontuan izatekoa da ez dela sortze hizkuntzari buruz galdetu atal horretan: erdaraz sortu baina euskaratutako agiriak ere aintzat hartu dira.

Idazki ez-formalak aintzat hartuta, badaude aldatetakoak. Dokumentu ofizialen aldean, gutxiago dira ele bietan idatzitakoak (%9), euskara idatzitakoetan igoera txiki bat dago (%20) eta igoera handiena erdara hutsean idatzitakoetan (%71). Unibertsitate barnerako agirietan baino 36 puntu handiagoa da portzentaje hori. Lankideekiko komunikazio ez formalerako oharretan ematen da euskararen erabilerearen emaitza aldekoenak, bai euskarazko izendatutako ataletan (%44 euskara hutsean) eta baita hezkuntza fakultateetan ere (%50 euskara hutsean).


28. taula: erakunde barneko idatzizko harremanetako batez besteko hizkuntza erabilera campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		Unibertsitate barnerako agiri eta dokumentuak			Lankideekiko komunikazio ez formalerako oharrak			Lan bileretako dokumentu idatzizkoak (deialdiak, aktak, txostenak)		
		Erdara hutsean %	Euskara hutsean %	Elebietan %	Erdara hutsean %	Euskara hutsean %	Elebietan %	Erdara hutsean %	Euskara hutsean %	Elebietan %
Campusa	Araba	37,8	8,9	53,3	73,3	18,1	8,6	49,2	11,0	39,8
	Gipuzkoa	23,4	16,5	60,2	52,9	35,9	11,2	34,8	14,8	50,4
	Bizkaia	38,9	6,1	55,0	76,9	14,9	8,1	62,2	4,2	33,6
	Guztira	35,2	8,9	55,9	71,4	19,8	8,9	53,9	7,7	38,4
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	12,4	15,9	71,7	48,9	44,2	6,9	43,2	24,1	32,7
	Atal elebiduna	31,1	11,2	57,7	66,4	22,2	11,4	48,5	8,5	42,9
	Bestelakoa	43,4	5,2	51,4	79,8	14,0	6,2	62,3	4,1	33,7
	Guztira	35,2	8,9	55,9	71,4	19,8	8,9	53,9	7,7	38,4
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	13,5	18,6	67,8	38,9	50,4	10,7	9,9	26,5	63,6
	Beste fak.	33,4	8,9	57,7	70,2	17,3	12,5	39,1	5,5	55,4
	Zerb. Orok.	38,4	8,0	53,6	74,8	19,2	6,0	68,0	7,5	24,5
	Guztira	35,2	8,9	55,9	71,4	19,8	8,9	53,9	7,7	38,4

Iturria: Siadeco, 2020.

Langileen hizkuntza gaitasunak ahozko jardunean baino eragin txikiagoa dauka idazki informaletan AZPko langileek erabiltzen duten hizkuntzan: euskaraz *ondo* idazten dutenen artean ere 3tik 1ek egiten du euskara hutsean (%30) eta hamarretik seik erdara hutsean (%60); euskaraz *nahiko ondo* moldatzen direnetan, %19ra jaisten da euskarazkoen ehunekoa, eta %70era igotzen da erdara hutsezkoena.

20. grafikoa. Idazki informalek egiteko hizkuntza, langileen idatzizko euskara gaitasun aitortuaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

Adinari jarraiki, 35 urtez azpikoek egiten dute euskaraz gehien, %26k zehazki, lankideekiko komunikazio ez formalerako oharrak idazterakoan. Gizonezkoek gehiago egiten dute erdara hutsean (%74k) emakumezkoek baino (%70). Eta, langileak egiaztatutako hizkuntza eskakizuna aztertuz, zenbat eta altuagoa izan egiaztatutako maila orduan eta nabariagoa da euskararen erabilera, lehena egiaztatutakoen %5ek egiten dute euskara hutsean nagusiki eta laugarrena egiaztatutakoen %48k.

29. taula: lankideekiko komunikazio ez formaleko hizkuntza erabilera adinaren, sexuaren eta egiaztatutako hizkuntza eskakizunaren arabera (%).

		Erdara hutsean %	Euskara hutsean %	Elebietan %
Adina	<=35 urte	68,0	25,9	6,2
	36-45 urte	74,0	21,3	4,7
	46-55 urte	68,4	20,1	11,5
	>55 urte	74,1	17,3	8,6
	Guztira	71,4	19,8	8,9
Sexua	Emakumezkoa	69,9	19,7	10,4
	Gizonezkoa	74,3	19,8	5,8
	Guztira	71,4	19,8	8,9
Langileak egiaztatutako HE	0	91,1	3,5	5,3
	1	88,1	5,4	6,5
	2	74,5	16,8	8,7
	3	62,4	26,9	10,7
	4	47,1	48,3	4,6
	Guztira	71,4	19,8	8,9

Iturria: Siadeco, 2020.

Euskal Herriko Unibertsitateko AZPko langileen beste eragile batzuekin dituzten idatzizko harremanak aztertuko dira atal honetan; alegia, herritar banakoekin ez, baizik eta herri erakundeekin eta enpresekin dauzkaten harremanak.

Zehazki, aztertu da langileak zein hizkuntzatan jarduten diren idatziz beste erakunde publikoetako beharginekin. Lehenik eta behin adierazi EAEko herri erakundeetatik idatziak jasotzen dituztela AZPko langileen herenak (%34) eta erakundeetara idatziak bidaltzen dituzte %14k.

Gainerako harreman motetan baino askoz pisu altuagoa du bi hizkuntzetan berdintsu aritzeak (%85). Euskarazko ataletan du, kasu honetan, euskarak erabilerarik handiena, %9 inguru. Eta Campuska, lehen aldiz Arabakoak (%7 euskaraz) Gipuzkoakoak (%4) gainetik kokatzen dira.

AZPko langileek eurek EAEko herri erakundeetara bidalitako idatziak aztertuz, berriz, gaztelaniaz hutsean idatzitakoak (%29) gehiago dira langile horiek eurek administrazio publikotik gaztelania hutsean jasotakoak baino (%60). Ele bietako eredia %60aren bueltan kokatzen da. Ele bietako eredia nabarmen altuagoa da, bestetik, hezkuntza fakultateetan (%96) eta euskarazko ataletan (%76).

30. taula: EAEko herri erakundeetatik jasotako idatzien hizkuntza eta EAEko herri erakundeetara bidalitako idatzien hizkuntza campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		EAEko herri erakundeetatik jasotako idatziak			EAEko herri erakundeetara bidalitako idatziak		
		Gazt. hutsean %	Eusk. hutsean %	Elebjetan %	Gazt. hutsean %	Eusk. hutsean %	Elebjetan %
Campusa	Araba	11,64	6,70	81,65	28,43	10,51	61,06
	Gipuzkoa	3,82	4,51	91,67	14,96	18,14	66,90
	Bizkaia	13,81	3,45	82,74	34,04	8,62	57,34
	Guztira	11,41	4,10	84,49	29,51	10,74	59,75
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	8,71	8,67	82,62	10,68	13,54	75,78
	Atal elebiduna	10,01	3,89	86,10	15,99	9,93	74,08
	Bestelakoa	13,42	3,59	82,99	45,15	10,81	44,04
	Guztira	11,41	4,10	84,49	29,51	10,74	59,75
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	2,37	7,52	90,11	,00	4,14	95,86
	Bestelako fak.	6,89	3,11	90,00	20,14	8,10	71,76
	Zerb. Orok.	14,41	4,40	81,19	35,51	12,30	52,19
	Guztira	11,41	4,10	84,49	29,51	10,74	59,75

Iturria: Siadeco, 2020.

Bestalde, aztertu dira ere UPV/EHUko hornitzaile zein bestelako enpresa pribatuetako langileekiko harremanak.

Zehazki, aztertu da langileak zein hizkuntzatan jarduten diren idatziz hornitzaile nahiz zerbitzu emaile diren bestelako enpresetako langileekin. Lehenik eta behin adierazi horrelako enpresetatik idatziak jasotzen dituztela AZPko langileen ia erdiek (%48) eta enpresetara idatziak bidaltzen dituzte 10etik 3k (%30).

Jasotako idatziak aztertuz, gaztelania hutsean dira 10etik ia 8 (%78), elebitan jasotakoak %17 eta euskara hutsean %5.

Enpresetara bidalitako idatziak aztertuz, berriz, gaztelaniaz hutsean idatzitakoak %74 dira, elebitan bidalitakoak %18 eta euskara hutsean %8.

31. taula: enpresa pribatuetatik jasotako idatzien hizkuntza eta enpresa pribatuetara bidalitako idatzien hizkuntza hizkuntza campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).


		Enpresa / entitate pribatuetatik jasotako idatziak			Enpresa/entitate pribatuetara bidalitako idatziak		
		Gazt. hutsean %	Eusk. hutsean %	Elebietan %	Gazt. hutsean %	Eusk. hutsean %	Elebietan %
Campusa	Araba	71,8	8,0	20,4	73,2	7,6	19,3
	Gipuzkoa	68,6	8,5	22,9	61,4	13,7	24,9
	Bizkaia	82,5	3,1	14,4	78,3	6,0	15,7
	Guztira	78,3	4,8	16,9	74,1	7,8	18,1
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	67,8	12,9	19,3	56,8	22,8	20,5
	Atal elebiduna	74,1	6,4	19,5	75,1	8,2	16,7
	Bestelakoa	83,0	2,6	14,4	75,6	5,3	19,0
	Guztira	78,3	4,8	16,9	74,1	7,8	18,1
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	65,3	10,9	23,8	59,4	14,7	25,9
	Bestelako fak.	80,6	3,2	16,3	79,4	5,9	14,7
	Zerb. Orok.	77,3	5,8	16,9	70,8	8,9	20,3
	Guztira	78,3	4,8	16,9	74,1	7,8	18,1

Iturria: Siadeco, 2020.

5.3. Sortze hizkuntza

Sortze hizkuntza zein duten galdetu zaie langileei: lanean sortzen dituzten testuak —dokumentuak, inprimakiak, mezu elektronikoak...— zein hizkuntzatan idazten dituzten.

21. grafikoa: langileen batez besteko sortze hizkuntza (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

Gaztelania da UPV/EHUko AZPko langileen sortze hizkuntza nagusia (%60), edukiak sortzen dituzten langileen euren arabera. Euskaraz %16k sortzen dituzte, eta ele bietan, ia laurdenak (%23,8). Euskarazko sortze hizkuntzak indar handiagoa du Gipuzkoako campusean (%28), euskarazko izendatutako ataletan (%34) eta hezkuntza fakultateetan (%37). Euskarazko sortze indizerik apalenak, berriz, bestelako ataletan (%11) eta Bizkaiko campusean (%12) dituzte.

Sortze hizkuntzaren datuak aztertu dira langileen bestelako ezaugarrien arabera ere. Badaude aldeak, 36-45 urte artekoetan dago euskarazko sorkuntza indizerik altuena (%21) eta 55 urtetik gorakoek baxuena (%14). Egiaztatutako hizkuntza eskakizuna aztertuz, zenbat eta altuagoa orduan eta euskarazko sorkuntza indize altuagoa ere, %6 lehenengoarekin eta %38 laugarrenarekin. Euskaraz idazteko gaitasunaren arabera ere badira aldeak, *Ongi* idazteko gai direnen artean, euskarazko sorkuntza %26koa da eta hitz batzuk idazteko gaitasuna dutenen artean %2koa eskas. Hala eta guztiz ere gaztelaniaz sortzen da gehien kasu guztietan.

32. taula: langileen batez besteko sortze hizkuntza campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren, zentro-motaren, adinaren, sexuaren, egiaztatutako hizkuntza eskakizunaren eta sortze hizkuntzako euskara gaitasunaren atabera (%)

		Gaztelaniaz nagusiki	Euskaraz/elebietan nagusiki	Batzuetan gazt. besteetan eusk./eleb.
Campusa	Araba	61,3	16,5	22,2
	Gipuzkoa	40,2	28,4	31,4
	Bizkaia	65,6	12,5	21,9
	Guztira	59,8	16,3	23,8
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	35,9	34,1	30,0
	Atal elebiduna	53,1	19,0	27,8
	Bestelakoa	70,3	11,2	18,5
	Guztira	59,8	16,3	23,8
Zentro-mota	Hezkuntza fak	31,9	37,6	30,5
	Bestelako fak	58,1	16,5	25,5
	Zerb Orok.	63,4	14,5	22,1
	Guztira	59,8	16,3	23,8
Adina	<=35 urte	55,0	18,5	26,4
	36-45 urte	59,5	21,3	19,2
	46-55 urte	55,8	15,2	28,9
	>55 urte	65,9	13,8	20,3
	Guztira	59,8	16,3	23,8
Sexua	Emakumezkoa	55,7	15,9	28,4
	Gizonezkoa	67,8	17,2	15,0
	Guztira	59,8	16,3	23,8
Langileak egiaztatutako HE	0	81,6	4,4	14,0
	1	64,3	5,8	29,9
	2	60,9	13,7	25,4
	3	53,0	22,4	24,6
	4	37,9	38,4	23,6
	Guztira	59,8	16,3	23,8
Idatzi	Ezer ez	91,7	0,0	8,3
	Hitz batzuk	88,5	1,7	9,8
	Zertxobait	69,5	6,7	23,7
	Nahikoa ongi	58,3	15,2	26,5
	Ongi	48,7	26,1	25,2
	Zehaztu gabe	81,8	9,9	8,3
	Guztira	59,8	16,3	23,8


Iturria: Siadeco, 2020.

5.4. Aplikazio informatikoak

Aplikazio informatikoak ere aztertu dira, laneko idatzizko hizkuntzarekin lotuta: langileek gehien erabiltzen dituzten aplikazio informatikoak zein hizkuntzatan dauzkaten.

Langileen erdiak (%48) ez daukate euskaraz instalatutako aplikazio informatikorik eta %26k aplikazioen erdiak baino gutxiago.

22. grafikoa: aplikazio informatikoetan euskarazko zenbat bertsio dauzkaten langileek (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

EHU/UPV-ko zentroetako solaskideei ere eskatu zaizkie aplikazio informatikoekin lotutako datuak: zehazki, baliabide informatikoak erabiltzen dituzten lanpostu kopurua eta euskarazko bertsioak instalatuta dauden lanpostuen portzentajea.

%35,1 da euskarazko bertsioak instalatuta dituztenen batez besteko portzentajea, kontuan hartu gabe zentro bakoitzean zenbat langile dauden. Aldiz, %49,9 da orotara, zentro bakoitzeko langile kopurua, eta adierazitako portzentajea kontuan hartuta, euskarazko bertsioak instalatuta dituzten langileen portzentajea. Datu hauek 13 fakultateetako solaskideek emandako informazioaren arabera kalkulatu dira.

33. taula: baliabide informatikoen erabilera eta euskarazko bertsioen instalazio maila.

	Kopuruak	%
Erantzun duen zentro kopurua	13	
Horietan, baliabide informatikoak erabiltzen dituzten lanpostu kopurua	1.880	
Euskarazko bertsioak instalatuta dituztenak (batez besteko %)		35,1
Zentro bakoitzean, euskarazko bertsioak instalatuta dituztela dioten ehunekoak, baliabide informatikoak erabiltzen dituztenei aplikatuta	939	49,9

Iturria: Siadeco, 2020.

5.5. Prestakuntza

AZPko langileen ikastaroak aztertu dira atal honetan: zein leku izan duten hizkuntzek ikastaroen eskaintzan eta langileek hautatu dituztenetan. Azken urtean ikastaroen batean parte hartu duten langileek erantzun dute (%56).


Orokorrean Arabako campuseko langileek formazio saio gehiagotan hartu dute parte, 2-3 saio artean %33k eta hiru baino gehiagotan %6k. Euskarazko atal izendatutakoetako langileek ere formazio saio gehiago egin dituzte, zehazki %36k 2-3artean.

34. taula: langileen partehartzea erakundeak azken urtean antolatutako ikastaroetan campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta motaren arabera (%).

		Bakar batean ere ez	Batean	Bi eta hiru artean	Hiru baino gehiagotan	Ez daki / Ez du erantzuten	Guztira
		%	%	%	%	%	%
Campusa	Araba	34,5	21,6	33,3	6,1	4,5	100,0
	Gipuzkoa	33,1	25,8	28,9	6,2	6,1	100,0
	Bizkaia	42,2	25,7	23,8	4,0	4,2	100,0
	Guztira	39,3	25,2	26,1	4,7	4,6	100,0
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	30,4	26,4	36,2	2,8	4,2	100,0
	Atal elebiduna	38,6	26,9	25,3	4,7	4,5	100,0
	Bestelakoa	41,1	23,0	26,1	4,9	4,9	100,0
	Guztira	39,3	25,2	26,1	4,7	4,6	100,0
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	37,8	22,1	31,4	3,7	5,1	100,0
	Beste fak.	34,7	24,3	31,4	4,8	4,7	100,0
	Zerb. Orok.	42,9	26,1	21,8	4,7	4,5	100,0
	Guztira	39,3	25,2	26,1	4,7	4,6	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

23. grafikoa: langileei eskainitako ikastaroetako hizkuntza egoera, eta egindako ikastaroena (%).



Iturria: Siadeco, 2020.

Ikastaro eskaintza aztertzen bada, 10etik 4k diote gehienak edo denak euskaraz egiteko aukera izan dutela. Gipuzkoako campuseko langileek adierazten dute gehien saioak euskaraz egiteko aukera eskaini zaiela, %47k. Zentro-motari jarraiki, aldiz, hezkuntza fakultateetan %32koa den bitartean kopuru hori, bestelako fakultateetan ia erdiraino igotzen da, %49,8. Azken multzo honetan dago, gainera, ikastaro eskaintza zein hizkuntzatakoa den ez dakitenen multzorik handiena (%26).

Egindako ikastaroak begiratuta, eskaintza baino erdaldunagoa da aukeraketa (%78), eta txikiagoa euskarazkoa (%7). Campus, atal eta zentro-mota guztietan nabari da jaitsiera hori, gainera.

35. taula: langileei eskainitako ikastaroetako hizkuntza egoera eta egindako ikastaroetan campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		ESKAINITZA				EGINDAKOIA			
		Gazt nagusiki/erabat	Erdi eta erdi	Eusk nagusiki/Erabat	Ez dakit/zehaztu gabe	Gazt nagusiki/erabat	Erdi eta erdi	Eusk nagusiki/Erabat	Ez dakit/zehaztu gabe
		%	%	%	%	%	%	%	%
Campusa	Araba	33,9	10,2	40,1	15,8	77,6	17,9	2,7	1,8
	Gipuzkoa	27,3	9,1	47,1	16,5	73,8	14,6	10,9	0,7
	Bizkaia	29,2	8,5	40,3	21,9	79,7	12,1	7,3	0,9
	Guztira	29,5	8,9	41,8	19,8	78,1	13,5	7,4	1,0
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	36,1	12,7	38,2	12,9	61,8	27,5	8,7	2,1
	Atal elebiduna	26,9	8,8	44,4	20,0	75,5	14,2	9,4	0,9
	Bestelakoa	31,8	8,5	39,1	20,6	83,4	10,8	4,8	1,0
	Guztira	29,5	8,9	41,8	19,8	78,1	13,5	7,4	1,0
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	31,2	10,0	32,7	26,1	78,3	17,9	3,7	0,0
	Bestelako fak.	25,9	9,0	49,8	15,2	78,1	11,9	8,7	1,3
	Zerb. Orok.	32,5	8,6	35,7	23,2	78,1	14,5	6,7	0,8
	Guztira	29,5	8,9	41,8	19,8	78,1	13,5	7,4	1,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Prestakuntzaren inguruko bestelako informazioa ere jaso dugu UPV/EHU-tik. Unibertsitateak 17 ikastaro antolatu zituen euskaraz 2019an, eta guztira 21 talde sortu ziren (ikastaroren bat bitan/hirutan eman zen). Gaztelaniaz berriz 82 ikastaro diferente eman zituen, eta denera 131 talde.

Guztira antolatutako 152 ikastarotatik, %13,8 euskaraz antolatu zen, eta %86,2 gaztelaniaz.

Parte hartzaileei dagokionez, %6,3k hartu zuen parte euskarazko ikastaro batean.

36. taula: 2019. urteko prestakuntzari buruzko datuak.

Ikastaroak	Gaztelaniaz	Euskaraz	Guztira	Gaztelaniaz	Euskaraz	Guztira
	<i>Kopurua</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Kopurua</i>	%	%	%
Ikastaro kopurua (taldeak)	131	21	152	86,2	13,8	100,0
Parte hartzaileak	1288	87	1375	93,7	6,3	100,0

Iturria: EHU. Siadecok landua

37. taula: euskaraz antolatutako ikastaroen izenburuak.

Ikastaroak
⇒ Administrazio publikoan datuak babesteari buruzko oinarritzko ezagutzak
⇒ Administrazio-egintzaren ezaugarri orokorrak 39/2015 legean
⇒ Administrazioen esku dauden datuak eta agiriak ez aurkezteko eskubidea
⇒ Administrazio-jakinazpenak araubide juridikoa praktika eta efektuak
⇒ Administrazio-prozedura erkidea 39/2015 Legean
⇒ Curso de Reanimación Cardiopulmonar (RCP) básica y desfibrilador externo semiautomático (DEA)/Oinarritzko Bihotz-Birikietako Bizkortzea eta kanpoko desfibriladore erdiautomatikoa
⇒ Diversidad sexual
⇒ Egintzaren araubide juridikoari eta administrazio prozedurari buruzko oinarritzko azterketa
⇒ Igualdad de mujeres y hombres. Curso básico
⇒ Informazioaren segurtasuna administrazio elektronikoaren arloan
⇒ Konpetentzia digitala Teknologia digitalaren erabilera sortzailea. Oinarritzko maila
⇒ Konpetentzia digitala: Identitate digitala kudeatzea. Oinarritzko maila
⇒ Konpetentzia digitala: Osasuna eta ongizatea babestea. Oinarritzko maila
⇒ Lenguaje inclusivo
⇒ Masculinidades.Hombres e igualdad: retos y resistencias
⇒ Mezu elektroniko egokiak idatzi
⇒ Nuevas masculinidades. Hombres e igualdad: retos y resistencias

5.6. Hizkuntza kudeaketa

Unibertsitatearen Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideei lotuta ondorengo bi galderak egin zaizkie fakultate eta campusetako ordezkariari. Batetik modu orokorrean, ea ezagutzen dituzten eta bigarrenik, jarraibide eta irizpide horiekin osatutako dokumentua ezagutzen al duten. Gehienek ezagutzen dituzte, bai orokorrean eta baita dokumentua bera ere: fakultateetako solaskideen %78k eta campusetako solaskideen %100ek.

38. taula: fakultate eta campusetako ordezkarien ezagutza Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideen inguruan.

	Zentro/ fakultateak				Campusak		
	Bai	Ez	Zehaztu gabe	Guztira	Bai	Ez	Guztira
Unibertsitatearen Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezagutzen al dituzu?	14	1	3	18	3	-	3
"UPV/EHU-ren harreman ofizialetan hizkuntzen erabilerarako jarraibide eta irizpideak" dokumentua ezagutzen al duzu?	13	2	3	18	3	-	3

Iturria: Siadeco, 2020.

Irizpide horien betetze mailari erreparatuta, fakultateetako solaskideen %45ek diote maila altuan betetzen direla eta %28k maila ertainean.

39. taula: hizkuntza Irizpideen betetze-maila fakultate eta campusetako ordezkarien ustetan.

	Zentro/fakultateak	Campusak
	Kopurua	Kopuruak
Erabat	0	1
Maila altuan	8	1
Maila ertainean	5	1
Maila baxuan	1	
Batere ez		
Ez dituzte Unibertsitatearen Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezagutzen eta ed/ee	4	
Guztira	18	3

Iturria: Siadeco, 2020.

AZPko langileei ondorengo bi galderak ere egin zaizkie: azken urtean zein mailatan hartu duten parte Unibertsitateak bultzatutako euskararen normalizaziorako ekimenetan batetik, eta duela bost urtetik hona, laneko ahozko komunikazioetan euskara geroz eta gutxiago ala geroz eta gehiago erabiltzen duen.

Inkestatuen heren batek (%33) ez dute parte hartu euskararen normalizaziorako antolatutako ekimenetan, laurden batek pasatxo (%28) gutxi eta ez duela parte hartzeko aukerarik izan diote %14k. Nahikoa parte hartu dutela diotenak %8 dira eta asko parte hartu dutenak %1 inguru.


40. taula: langileek euskararen normalizazioaren aldeko egitasmoetan izandako parte hartzea (%).

		Asko	Nahikoa	Gutxi	Batere ez	Ez da euskararen normalizaziorako ekimenik aurrera eraman	Ez dut aukerarik izan eusk. norm. ekimenetan parte hartzeko	Zehaztu gabe	Guztira
		%	%	%	%	%	%	%	%
Campusa	Araba	1,0	8,2	28,4	31,6	4,1	14,2	12,5	100,0
	Gipuzkoa	1,6	10,1	30,2	30,4	3,4	14,1	10,1	100,0
	Bizkaia	1,4	8,0	26,9	34,3	3,2	13,3	12,9	100,0
	Guztira	1,4	8,5	27,8	33,1	3,3	13,6	12,3	100,0
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	4,3	9,1	37,2	24,6	,0	14,5	10,3	100,0
	Atal elebiduna	1,4	9,6	28,5	31,0	4,3	13,6	11,7	100,0
	Bestelakoa	1,1	7,2	25,9	36,6	2,6	13,5	13,2	100,0
	Guztira	1,4	8,5	27,8	33,1	3,3	13,6	12,3	100,0
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	2,1	9,9	38,9	24,6	4,1	12,4	8,1	100,0
	Beste fak.	1,4	9,6	30,4	28,5	2,9	15,0	12,2	100,0
	Zerb. Orok.	1,3	7,6	24,9	37,3	3,6	12,7	12,7	100,0
	Guztira	1,4	8,5	27,8	33,1	3,3	13,6	12,3	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Euskararen erabilera zertan ote den, pertsonalki gehiago edo gutxiago egiten ote duten langileek, eboluzioari buruzko inpresioa bildu da. Bi erabilera mota hartu dira aztergai: ahozkoa eta idatzizkoa.

24. grafikoa: euskararen erabileran izandako eboluzioa (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

Langileen gehiengo batek diote egoera paretsu dagoela azken bost urteotan, idatzizkoan gehiago (%46) ahozkoan baino (%43). Hobera egin duela diote, 10etik 4k inguru. Egoerak okerrera egin duela diotenak, 10etik 1. Joera antzekoa dute aztertutako bi aldagaiek, ahozkoak eta idatzizkoak.

Emaitzen azterketa zehatzago bat eginez, aurrerapausorik handienak orokorrean gipuzkoako campusekoek eta hezkuntza fakultateetako langileek sumatu dute. Ahozkoan eta idatzizkoan, bietan ageri dira buruan horiek.

41. taula: euskararen ahozko erabileraren bilakaera campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%)

		Geroz eta gutxiago	Geroz eta gehiago	Berdin	Ez dut era honetako harremanik + zehaztu gabe	Guztira
		%	%	%	%	%
Campusa	Araba	7,3	45,3	40,7	6,8	100,0
	Gipuzkoa	6,8	53,4	36,7	3,1	100,0
	Bizkaia	12,3	36,1	45,1	6,5	100,0
	Guztira	10,5	40,9	42,8	5,8	100,0
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	5,5	51,7	40,0	2,8	100,0
	Atal elebiduna	10,3	44,2	39,1	6,4	100,0
	Bestelakoa	11,3	35,8	47,5	5,4	100,0
	Guztira	10,5	40,9	42,8	5,8	100,0
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	4,2	53,0	39,7	3,0	100,0
	Bestelako fak.	12,2	43,5	39,1	5,1	100,0
	Zerb. Orok.	9,8	37,9	45,8	6,6	100,0
	Guztira	10,5	40,9	42,8	5,8	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

42. taula: euskararen idatzizko erabileraren bilakaera campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%).

		Geroz eta gutxiago	Geroz eta gehiago	Berdin	Ez dut era honetako harremanik + zehaztu gabe	Guztira
		%	%	%	%	%
Campusa	Araba	7,0	37,1	47,9	8,0	100,0
	Gipuzkoa	6,0	48,3	41,6	4,1	100,0
	Bizkaia	11,1	35,2	47,3	6,4	100,0
	Guztira	9,5	38,1	46,2	6,1	100,0
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	7,5	48,4	42,6	1,5	100,0
	Atal elebiduna	9,4	42,0	41,4	7,2	100,0
	Bestelakoa	9,8	32,5	52,3	5,4	100,0
	Guztira	9,5	38,1	46,2	6,1	100,0
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	4,3	55,1	37,0	3,6	100,0
	Beste fak.	8,3	37,3	48,9	5,5	100,0
	Zerb. Orok.	10,8	37,4	45,0	6,8	100,0
	Guztira	9,5	38,1	46,2	6,1	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Langileen hizkuntza gaitasunaren arabera aztertzen badira datuak, joera da euskaraz eroso egiten dutenen artean, aurrerapausoak sumatzen dituztenak gehiago izatea. Ahozkoari dagokionean, euskaraz ongi hitz egiten dutenen %53k diote gero eta gehiago erabiltzen dutela laneko ahozko komunikazioetan eta idatzizkoari dagokionean, euskaraz ongi idazten dutenen %44k nabaritu dute aurrerapausoa.

43. taula: euskararen ahozko erabileraren bilakaera, euskaraz hitz egiteko gaitasunaren arabera (%).

		Geroz eta gutxiago	Geroz eta gehiago	Berdin	Ez dut era honetako harremanik	Zehaztu gabe	Guztira
		%	%	%	%	%	%
Hitz egin	Ezer ez	2,5	5,2	90,3	0,0	2,0	100,0
	Hitz batzuk	5,6	7,9	73,9	11,1	1,6	100,0
	Zertxobait	17,7	32,4	44,6	3,4	1,8	100,0
	Nahikoa ongi	12,9	42,4	42,0	0,3	2,5	100,0
	Ongi	5,9	53,1	37,3	2,2	1,5	100,0
	Zehaztu gabe	8,3	21,9	8,8	0,0	61,0	100,0
	Guztira	10,5	40,9	42,8	2,2	3,6	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

44. taula: euskararen idatzizko erabileraren bilakaera, euskaraz idazteko gaitasunaren arabera (%).

		Geroz eta gutxiago	Geroz eta gehiago	Berdin	Ez dut era honetako harremanik	Zehaztu gabe	Guztira
		%	%	%	%	%	%
Hitz egin	Ezer ez	1,8	3,6	85,4	7,6	1,6	100,0
	Hitz batzuk	0,0	16,7	80,6	2,7	0,0	100,0
	Zertxobait	18,8	23,3	55,1	2,6	0,4	100,0
	Nahikoa ongi	7,4	48,9	38,8	2,7	2,1	100,0
	Ongi	7,7	44,2	43,6	2,8	1,8	100,0
	Zehaztu gabe	8,3	25,4	5,3	0,0	61,0	100,0
	Guztira	9,5	38,1	46,2	2,8	3,3	100,0


Iturria: Siadeco, 2020.

5.7. Iritzia

5.7.1. Langileak

Lanean ari diren lanpostuan bertan eta erakundean, euskararen erabilerak izan duen bilakaera baloratzeko eskatu zaie langileei. Batetik, balorazio orokor bat eskatu zaie bi galdera itxien bidez, eta, bestetik, balorazio hori argumentatzeko aukera eman zaie.

25. grafikoa: lanpostuan bertan euskararen erabilerari buruz langileek egindako balorazioa (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

Norbere lanpostuan izandako bilakaerari buruz jarrera baikorra daukate langileen %39k; ezkorra, berriz, nabarmen gutxiagok, hamarretik batek. Herenak erdian daude: *ez positibo, ez negatibo*.

Campusa, atala eta zentro-mota kontuan izanda, positibotasunik handiena hezkuntza fakultateetan ageri da, 3tik 2 langilek diote positiboa edo oso positiboa dela bilakaera.


45. taula: lanpostuan euskararen erabilerak izandako balorazioa campusaren, atalaren hizkuntza izaeraren eta zentro-motaren arabera (%)

		Oso negatiboa	Negatiboa	Ez negatibo ez positiboa	Positiboa	Oso positiboa	Zehaztu gabe	Guztira
		%	%	%	%	%	%	%
Campusa	Araba	1,2	3,9	34,9	38,0	7,4	14,5	100,0
	Gipuzkoa	2,2	3,8	24,9	42,7	11,4	15,0	100,0
	Bizkaia	1,4	10,6	40,3	27,7	6,2	13,9	100,0
	Guztira	1,5	8,3	36,4	32,2	7,4	14,2	100,0
Atalaren hizkuntza izaera	Euskarazko atala	1,5	5,5	24,7	45,9	15,4	7,0	100,0
	Atal elebiduna	1,2	6,2	35,8	36,0	8,6	12,2	100,0
	Bestelakoa	1,9	11,1	38,3	26,3	5,1	17,3	100,0
	Guztira	1,5	8,3	36,4	32,2	7,4	14,2	100,0
Zentro-mota	Hezkuntza fak.	0,0	2,1	24,1	46,4	20,2	7,2	100,0
	Beste fak.	0,7	7,1	34,1	33,8	8,3	16,0	100,0
	Zerb. Orok.	2,3	9,7	39,1	29,9	5,6	13,4	100,0
	Guztira	1,5	8,3	36,4	32,2	7,4	14,2	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Oro har, langileen gaitasuna handitu ahala areagotu egiten da jarrera positiboa. *Ongi* hitz egiten dutenen artean dago jarrera aldekoena: %53.

26. grafikoa: lanpostuko euskararen erabileraren bilakaeraz egiten den balorazioa, langileen hizkuntza gaitasunaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

Euskarak bakoitzaren lanpostuan izandako bilakaerari buruzko balorazio hori arrazoitzeko eskatu zaie langileei, alegia zergatik egin duten balorazio positiboa edo negatiboa.

Balorazio **oso negatiboa edo negatiboa** egin dutenek (%10) emandako zergatiak ondorengoak izan dira:

- 1 Beharginen artean euskararen ezagutza maila apala izatea; batzuek, norberaren ezintasuna aitortzen dute, hala ere gehienek, ingurukoek ez dakitela eta horrek euskaraz aritzea mugatzen duela adierazi dute. *Oharra: langileen ondorengo erantzunak, bakoitzak idatzi bezalaxe daude*

	Campusa	Atal izaera	Zentro-mota	Hitz egiteko gaitasuna	Adina
<i>LO HABITUAL ES EL CASTELLANO, SUPONGO QUE PORQUE HAY PERSONAL QUE NO HABLAMOS EUSKERA</i>	Bizkaia	Atal elebiduna	Bestelako fak	Ezer ez	>55 urte
<i>Lankide askorekin erdaraz egiteko joera dago, euskara ez dutelako behar bezala dominatzen.</i>	Gipuzkoa	Atal elebiduna	Bestelako fak	Ongi	36-45 urte
<i>Zaila da. Nere atalean geihenak ez dira euskeraz ondo moldatzen, edo ez dakite Edo ez dute ohiturarik.</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Ongi	36-45 urte
<i>Jendearekiko harremanetan egiten dut lan, beraz denak izan beharko ginake gai euskaraz publikoarekin hitz egiteko eta ez da horrela, gehienetsuenok gai bagera ere</i>	Gipuzkoa	Atal elebiduna	Zerb Orok.	Ongi	46-55 urte
<i>Porque me cuesta principalmente escribir, no tengo buen nivel para hacerlo y por eso habitualmente escribo todo en castellano. Hablando tengo mucha más facilidad y puedo llevar una conversación aunque me cuesta cada vez más porque estoy perdiendo la costumbre de hacerlo. Pero en las reuniones entiendo todo, no tengo problema. Me falta seguridad sobre todo en la escritura.</i>	Gipuzkoa	Atal elebiduna	Hezkuntza fak	Nahikoa ongi	>55 urte
<i>Porque desde que saqué el perfil hasta que entré a trabajar en la UPV/EHU pasaron varios años y en ese periodo de tiempo perdí mucho, porque todo mi entorno (familia, amistades, asistencia a cursos varios, otros trabajos) siempre ha sido en castellano, al ser una persona natural y con residencia en vitoria de casi 50 años.</i>	Araba	Atal elebiduna	Bestelako fak	Hitz batzuk	46-55 urte
<i>Porque no se utiliza el idioma tanto como deberíamos; se tiende a hablar en castellano porque hay compañera a los que les cuesta utilizar el idioma</i>	Gipuzkoa	Atal elebiduna	Bestelako fak	Ongi	46-55 urte
<i>Euskaraz ondo hitzegiten dutenak gutxi dira eta zaila da edozein elkarrizketa mantentzea, eta hare eta gehiago hitz teknikoak, gehienak ingelesak, erabili behar badira</i>	Gipuzkoa	Bestelakoa	Zerb Orok.	Zertxobait	46-55 urte
<i>Por comodidad. No es mi lengua materna y prefiero utilizar la mía</i>	Bizkaia	Euskarazko atala	Zerb Orok.	Zertxobait	>55 urte
<i>Al no utilizarlo preferentemente, noto que voy hacia atrás en cuanto a la fluidez oral</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Bestelako fak	Nahikoa ongi	46-55 urte

	Campusa	Atal izaera	Zentro-mota	Hitz egiteko gaitasuna	Adina
<i>PORQUE ACABARÉ SIN PUESTO DE TRABAJO AL NO SBER APENAS EUSKERA</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Hitz batzuk	46-55 urte
<i>Porque el euskera no es mi lengua de trabajo ni relacional, y podría utilizarlo mas, aunque mis conocimientos de euskera no permitan una fluidez deseable</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Zertxobait	>55 urte
<i>Errektoreordea eta zuzendaritzan dauden pertsonak, ez dute euskara erabiltzen, ez dakitelako.</i>	Gipuzkoa	Bestelakoa	Zerb Orok.	Nahikoa ongi	36-45 urte
<i>Lankide euskaldunak izan arren gehiengoak erdaldunak direnez gaztelera da hizkuntz nagusia lanean eta hori oso zaila da aldatzea besteek euskara ikasteko ahaleginik egiten ez dutenean ezta interesik ere ez dutenean.</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Ongi	36-45 urte
<i>Lan taldean euskaraz ez dakiten pertsonak daudenean (batipat beraietako bat nagusia denean), gaztelania lehenesten da bai ahozko bai idatzizko komunikazioetan.</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Ongi	36-45 urte
<i>Nahiz eta saiatu ez dakat aukera asko euskeraz mintzatzeko, beti dago norbait ez dakiena eta gaztelaniara jotzen da</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Bestelako fak	Ongi	36-45 urte
<i>Arazoa da nire lankide gehienak ez dakitela euskeraz, beraz askotan denok ulertzeko dakitenekin ere gaztelaniaz mintzatzen gara.</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Ongi	36-45 urte

2 Euskararen erabilera maila baxua dela argudiatu dute beste askok, balorazio oso negatiboa edo negatiboa egiteko.

	Campusa	Atal izaera	Zentro-mota	Hitz egiteko gaitasuna	Adina
<i>Oso gutxitan hitz egiten delako esukaraz, langile gihienek badakite, baina erabili ez.</i>	Bizkaia	Atal elebiduna	Zerb Orok.	Ongi	>55 urte
<i>Cuando los euskaldunes quieren que algo quede claro lo hacen en castellano. El euskera administrativo es mas dificil que el normal hablado. A veces los eukaldunes se reservan el euskera para ellos, yo soy euskaldunberri. Todo esto son sensaciones no podría asegurarlo.</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Bestelako fak	Nahikoa ongi	46-55 urte
<i>Aurrera egin beharrea gero eta gutxiago hitz egiten dugulako.</i>	Bizkaia	Atal elebiduna	Bestelako fak	Zertxobait	46-55 urte
<i>Denbora pasa ahala, gero eta gutxitan erabiltzen dut. Nire lanean harreman gutxi dut euskeraz erabiltzen duten pertsonekin eta</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Bestelako fak	Nahikoa ongi	>55 urte
<i>Orokorrean hitz egiteko edo idazteko tendentzia erdera da,</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Bestelako fak	Nahikoa ongi	>55 urte
<i>Duela 7 urte zentruz aldatu nintzen eta oraingoan euskara gutxiago erabiltzen da orokorrean (irakasle, ikasle eta AZPkoen aldetik)</i>	Araba	Bestelakoa	Bestelako fak	Ongi	46-55 urte
<i>Euskeraz gutxi hitz eviten dugu</i>	Araba	Atal elebiduna	Bestelako fak	Zertxobait	46-55 urte
<i>No he tenido apenas oportunidad para hablarlo</i>	Araba	Bestelakoa	Bestelako fak	Nahikoa ongi	46-55 urte
<i>No se usa el apenas el Euskera en mi lugar de trabajo.</i>	Bizkaia	Atal elebiduna	Bestelako fak	Ongi	46-55 urte
<i>Es un servicio donde apenas se habla euskera, solo me relaciono en euskera con una compañera de trabajo y con el jefe dr servicio, de 11 personas que trabajamos en el servicio</i>	Bizkaia	Atal elebiduna	Zerb Orok.	Ongi	>55 urte
<i>Porque no se utiliza prácticamente nunca</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Bestelako fak	Ongi	36-45 urte
<i>Porque el nivel de uso del euskera es bajo</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Bestelako fak	Nahikoa ongi	46-55 urte
<i>euskera dakiten batzuek ez dute hitz egiten, beti gara berdinek euskera hitz egiten dugunok.</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Ongi	>55 urte
<i>Euskera gutxi entzuten delako</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Nahikoa ongi	46-55 urte
<i>euskaraz hitz egiten ez dutelako</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Nahikoa ongi	36-45 urte
<i>Ez delako erabiltzen, orokorrean</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Zertxobait	46-55 urte
<i>Gutxi erabiltzen delako.</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Nahikoa ongi	46-55 urte
<i>porque entre nosotros no hablamos en euskera</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Ongi	46-55 urte

	Campusa	Atal izaera	Zentro-mota	Hitz egiteko gaitasuna	Adina
<i>Euskara ez delako oro har erabiltzen den hizkuntza; hizkuntz nagusia gaztelania da, nahiz idatziz, nahiz ahozko harremanetan.</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Ongi	36-45 urte
<i>kanpoko enpreseen lehen hitza beti gaztelania delako</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Ongi	46-55 urte
<i>Inglesa erabiltzen dudalako, gero eta gehiago</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Nahikoa ongi	46-55 urte
<i>A pesar de que muchos los sabemos, no lo empleamos demasiado</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Nahikoa ongi	<=35 urte

- 3 Hizkuntza eskakizunen sistemak, hein batean ezagutza bai, baina lanpostuan euskaraz aritzea ez duela bermatzen ere bat baino gehiagok adierazi du.

	Campusa	Atal izaera	Zentro-mota	Hitz egiteko gaitasuna	Adina
<i>Porque el Euskera cada vez se habla menos y es tomado como un instrumento para acceder al trabajo por la mayor parte de las personas una vez conseguido el perfil</i>	Bizkaia	Atal elebiduna	Zerb Orok.	Nahikoa ongi	>55 urte
<i>No se promueve el uso del Euskera. Solo se obliga a sacar un título.</i>	Bizkaia	Bestelakoa	Zerb Orok.	Zertxobait	46-55 urte

- 4 Inguruko eta “goikoen” hizkuntzarekiko jarrerak duen garrantzia ere jaso da.

	Campusa	Atal izaera	Zentro-mota	Hitz egiteko gaitasuna	Adina
<i>Nik euskaraz egin nahiko nuke, baina lankide eta nagusiek prest ez badaude...</i>	Araba	Atal elebiduna	Zerb Orok.	Ongi	<=35 urte
Zerbitzu hizkuntzari lotuta idatzizko jarduna aztertuz, zerbitzu hartzaileek erakundera igortzen dituzten idazkien erdia (%50) gaztelaniaz iristen dira eta %19 euskara hutsean, gainerakoak bietara (%30). Zerbitzu hartzaileen idazkiak jasotzen dituzten AZPko langileek eman dute informazio hori.

Galdetu denean zerbitzu hartzaile horiek euskaraz idaztean nola erantzuten duten langileek, euskaraz iritsitako idazkien %45ari erantzuten diete euskara hutsean eta %25ei bietara. Testuen %30 erdaraz bakarrik bidaltzen zaizkie euskaraz idatzi dutenei. Euskarazko idatziei gaztelania hutsean erantzuteko egoera horren maila baxuena erakusten dute “euskarazko” izendatutako atalako langileek (%17), hezkuntza fakultateetakoek (%17) eta Gipuzkoako campusetakoek (%22).

6.2. Lan hizkuntza

Aztertu da zein den euskararen egoera AZPko langile horien barnerako jardunean, lanean alegia: bai ahozkoan eta baita idatzizkoan ere, instalatutako aplikazio informatikoetan eta prestakuntzan.

Ahozko komunikazioan, badira aldeak harreman esparruari dagokionez. Atalburu/zerbitziburuekiko harremanetan euskara hutsean egiten dutenak %19 dira, lankideekin aldiz %16k eta lan bileretan %13ra egiten du behera. Kanpokoak diren eragileekiko harremanetan, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoetako langileekiko ahozko harremana euskaraz dela nagusiki diote AZPko langileen %37. Portzentajea %10 ingurura jaisten da unibertsitatearentzat lan egiten duten bestelako enpresa pribatuetako langileekin.

Laneko idatzizko jardunean zein hizkuntzatan aritzen diren aztertuta, lan bileretako dokumentuen erdiak pasatxo gaztelania hutsezkoak dira (%54), eta langile arteko komunikazio ez-formaletan ere gaztelania da nagusi (%71). Lan bileretako agirietan, aldiz, ele bitakoak dira gehien (%56). EAEko herri erakundeetatik jasotako idazkien %85 bietara idatzita daude, eta %11 erdara hutsean. AZPko langileek erakunde horietara bidalitako idazkiak aztertuz, berriz, ele bitakoak %60 dira eta erdara hutsekoak %30. Beste hornitzaile eta enpresa pribatuekiko idatzizko harremanari dagokionean, jasotako idatzien %78 dira erdara hutsekoak eta %17 ele bitakoak. Haietara bidalitakoen artean, aldiz, %74 erdara hutsekoak eta %18 ele bitakoak.

Idatzizko jardunean idazkiak zein hizkuntzatan igortzen diren aztertu da aurreko ataletan, baina zein hizkuntzatan sortzen dira horiek guztiak? Gaztelaniaz gehienak (%60). Ondoren ele bitako produkzioa dator (%24) eta azkenik euskara hutsezkoa (%16).

Baliabide informatikoen atalean, langileen erdiak (%48) ez daukate instalatuta batere euskarazkorik. Langileek diote hori. Bestetik, erakundeko ordezkariak adierazitakoaren arabera, %35 dira euskarazko bertsioak instalatuta dituztenen batez besteko portzentajea, kontuan hartu gabe zentro bakoitzean dauden langileak. Kopuru hori kontuan hartuta, %50era igotzen da indizea.

Lan eremuko arloari dagokionez, galdetu da langileen prestakuntzan zein den euskararen tokia. Lehenik eta behin adierazi azken urtean ikastaroren batean parte hartu duten langileak erdia pasatxo izan direla (%56). Ikastaroen eskaintza aztertuta, 10etik 4k diote gehienak edo denak euskaraz egiteko aukera izan dutela; %20k ia dute erantzuten jakin ikastaroa zein hizkuntzatan egiteko aukera izan duten. Egindako ikastaroak begiratuta, eskaintza baino erdaldunagoa da aukeraketa (%78), eta txikiagoa euskarazkoa (%7). 2019an guztira antolatutako 152 ikastarotatik, %13,8 euskaraz antolatu zen, eta %86,2 gaztelaniaz.

UPV/EHUren Hizkuntza Irizpideak ezagutzen ote dituzten galdetu zaie fakultate eta campusetako ordezkariari. Modu orokorrean batetik eta jarraibide eta irizpide horiek jasotzeko landutako dokumentua zehazki bestetik. Gehienek ezagutzen dituzte: fakultateetako solaskideen %78k eta campusetako solaskideen %100ek. Irizpide horien betetze mailari erreparatuta, fakultateetako solaskideen %45ek diote maila altuan betetzen direla eta %28k maila ertainean.

AZPko langileen heren batek (%33) ez du parte hartu euskararen normalizaziorako antolatutako ekimenetan, laurden batek pasatxo (%28) gutxi eta ez duela parte hartzeko aukerarik izan diote %14k. Euskararen erabileraren bilakaeraz galdetuta, pertsonalki gehiago edo gutxiago egiten ote duten langileek, gehiago dira baikorrak ezkorak baino, bai ahozkoan eta baita idatzizkoan baino: ahozkoan %41ek diote erabileraren bilakaera positiboa dela eta %10ek negatiboa, idatzizkoan %38k diote positiboa dela eta %9k negatiboa.

Erakundeak berak emandako informazioarekin aztertu da AZPko langileen artean zein hizkuntza eskakizun dauden ezarrira: bigarrena dago hedatuena (%59), eta ondoren, hirugarrena (%29). Lanpostuei ezarritako HEen egiaztatze maila aztertuta, lanpostuak daukana edo altuagoa egiaztatuta dute lanpostuen %75ek, ezer egiaztatu gabe dutenak %15 dira eta ezarritakoa baino baxuagoren bat dutenak %8.

Langileei galdetu zaie beren hizkuntza gaitasunari buruz, eta 3tik 2k adierazi dute gai direla euskaraz hitz egiteko (%65). Idazteko gaitasuna aurrekoaren gainetik kokatzen da, %72 dira ongi edo nahikoa ongi idazteko gai.

6.3. Adierazleen taula: egitura eta adierazleen kalkulurako prozedura eta emaitza

1. Ardatza

Zerbitzu hizkuntza

1. Erakundearen irudia

1.1. ERROTULAZIOA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak	
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emaitza (%)			
				Euskaraz	Ele bietan		Gaztelaniaz
1.1.1. Eraikinetako errotulazio orokorra	1.1 (1.1) ²		<p>Euskarri motak: Eraikinetan, barruan nahiz kanpoan dagoen errotulazioa: herritarren joan-etorri handieneko espazioetan dauden seinale, errotulu eta informazio euskarri orokorrak. Ohikoenak hauek dira: toki edo zerbitzuen identifikazio seinaleak, norabide seinaleak, igogailuetako ahots mezu automatikoak eta herritarrei zuzendutako informazio panel elektronikoak.</p> <p>Ehuneakoak kalkulatzeko prozedura: Errotulazio orokorreko elementuen hizkuntza egoeraren ehuneakoak: euskara hutsez, ele bietan eta gaztelania hutsez dauden errotuluen ehuneakoak.</p>	1,8	97,3	1,0	Arte Ederren fakultatean, gaztelaniaz %10; Hezkuntza, Filosofia eta Antropologian euskaraz %20 eta informatikan %10.

² Parentesi artean, V. Plangintzaldiko ebaluazioko adierazle taulan, adierazle honen parekoari zegokion galdera zenbakia.

1.2. ARGITALPENAK, PUBLIZITATEA, ALBISTEAK ETA JENDAURREKO EKITALDIAK	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak	
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emitza (%)			
				Euskaraz	Ele bietan		Gaztelaniaz
1.2.1. Irudi korporatiboko elementuak	2.1 (1.2)		<p>Euskarri motak: Gutun azalak, orri buruak, zigiluak, bisita txartelak, eta erakundeak erabiltzen dituen irudi korporatiboko bestelako euskarri eta papertegiko elementuak</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: Euskara hutsean, ele bietan eta gaztelania hutsean dauden elementuen ehunekoak.</p>	5,1	94,4	0,6	
1.2.2. Erakundearen beraren papereko argitalpenak	2.2. (1.3)		<p>Euskarri motak: Erakundeak berak paperean argitaratutako argitalpenak: lan zientifikoak, teknikoak, artistikoak edo bestelakoak, aldizkariak, egitarauak, agendak, informazio orriak, memoriak eta abar.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: Inpaktu handieneko argitalpenetara mugatzen da neurketa, honako jarraibide hauei segituta:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1- Zabalpen handienekoak: erabilpen handia duten hartzaileei bideratuak. 2- Erakundeak maiztasun handiz kaleratzen dituen argitalpenak. 3- Zabalpen maila eta maiztasuna kontuan izanda, erakundearen papereko bost argitalpen garrantzitsuenak zerrendatu behar dira. 4- Behin erakundearen papereko bost argitalpen nagusiak identifikatuta, bost horien hizkuntza egoeraren arabera kalkulatu da adierazlea; hau da, bost elementuetatik euskara hutsean, ele bietan edo gaztelaniaz argitaratzen direnen ehunekoak. Bost argitalpenei pisu bera emango zaie, zein nahi dela argitalpen bakoitzaren maiztasuna edota orrialde kopurua. 5- Zehaztu egin behar da zein bost argitalpen hartu diren kontuan, hurrengo ebaluazioa egiten denerako erreferentzia gisa. 	4,0	91,5	4,8	

1.2. ARGITALPENAK, PUBLIZITATEA, ALBISTEAK ETA JENDAURREKO EKITALDIAK	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea				Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emaitza (%)			
				Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz	
1.2.3. Iragarkiak eta publizitatea	1.1. Campus (1.4)		<p>Euskarri motak: Idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideek zein hizkuntzatan argitaratzen dituzten erakundearen iragarkiak, sustapen kanpainak edota publizitatea.</p> <p>Ehuneakoak kalkulatzeko prozedura: Identifikatu erakundeak bere iragarkiak jartzen dituen hedabideak (bost gehienez), eta publizitatea argitaratzeko hizkuntza neurtu. Bost hedabideei pisu bera emango zaie, zein nahi dela argitalpen bakoitzaren maiztasuna edota orrialde kopurua.</p>	6,7	93,3	0,0	Gipuzkoak %20 euskaraz; gainerakoak %100 bietara
1.2.4. Erakundeari buruzko albistek	1.2. Campus (1.5)		<p>Euskarri motak: Idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideek zein hizkuntzatan argitaratzen dituzten erakundeari buruzko berriak.</p> <p>Ehuneakoak kalkulatzeko prozedura: Erakundeari buruzko berriak ematen dituzten hedabide nagusiak hartu (bost gehienez), eta erabilitako hizkuntzaren arabera egin kalkuluak. Bost hedabideei pisu bera emango zaie.</p>	0,0	100,0	0,0	
1.2.5. Jendaurreko ekitaldiak	3.1	(4.4)	<p>Komunikazio mota: Zentroan azken 12 hilabeteetan antolatutako jendaurreko saio edota aurkezpenetan.</p> <p>Ehuneakoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten solaskideen ehunekoak; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu.</p>	74,0			
1.2.6. Aurkezpen eta saioak		15 (-)	<p>Komunikazio mota: Aurkezpen eta saioetan erabilitako hizkuntza.</p> <p>Ehuneakoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Adierazlea kalkulatzeko, kontuan hartuko dira aurkezpen eta saiotan parte hartzen duten langileen erantzunak.</p>	31,8			

1.3. INGURUNE DIGITALA	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak	
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emaitza (%)			
				Euskaraz	Ele bietan		Gaztelaniaz
1.3.1. Unibertsitatearen webguneak eta tramitazio telematikoak	1.3 Campus (1.6)		<p>Euskarri motak: Erakundearen webguneako atal finkoak eta dinamikoak, eta Internet bidez eskainitako zerbitzu telematikoak.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: Euskarri digital horiek zein hizkuntzatan kontsulta edo erabil daitezkeen, kontuan hartu gabe herritarrek hizkuntza batean edo bestean egindako erabilpena.</p>	0	100	0	
1.3.2. Zentroaren webguneak eta tramitazio telematikoak	2.3 (-)		<p>Euskarri motak: Zentroaren webguneako atal finkoak eta dinamikoak, eta Internet bidez eskainitako zerbitzu telematikoak.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: Euskarri digital horiek zein hizkuntzatan kontsulta edo erabil daitezkeen, kontuan hartu gabe herritarrek hizkuntza batean edo bestean egindako erabilpena.</p>	0	97,5	2,5	
1.3.3. Sare sozialak eta aplikazio digitalak	1.4 Campus (1.7)		<p>Euskarri motak: Erakundearen sare sozialak eta herritarrekin komunikatzeko erakundearen beraren aplikazio telematikoak.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: Erakundeak zein hizkuntza erabiltzen dituen euskarri horietan, kontuan hartu gabe herritarren erabilera.</p>	0	100	0	

2. Bezeroekiko (pertsone fisikoak) edo herritarrekiko harremanak

2.1. BEZERO EDO HERRITARREKIKO IDATZIZKO HARREMANAK	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak	
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Eraitza (%)			
				Euskaraz	Ele bietan		Gaztelaniaz
2.1.1. Atal/zerbitzuak zerbitzuak ematen dizkieten kolektiboek (unibertsitate bertako nahiz kanpoko eragileek) erakundera bidalitako idatziak eta aurkeztutako idatzizko eskaerak		17 (6.2)	<p>Komunikazio mota: Kolektibo horiek zein hizkuntzatan aurkezten dituzten erakundera igorritako idatziak: gutunak, erreklamazioak, eskaera orriak, agiri telematikoak, mezu elektronikoak, eta abar...</p> <p>Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Langileek hizkuntza aldagai bakoitzari (gaztelania hutsean, euskara hutsean eta ele bietan) emandako balioen batez bestekoa. Galdera honi ez diote erantzungo kolektibo horiek aurkeztutako idatziak irakurri beharrik ez duten langileek.</p>	19,1	30,3	50,6	
2.1.2. Atal/zerbitzuak zerbitzuak ematen dizkieten kolektiboek (unibertsitate bertako nahiz kanpoko eragileek) erakundeak bidalitako idatzizko komunikazio ofizialak		19 (6.4)	<p>Komunikazio mota: Kolektibo horiei zein hizkuntzatan iristen zaizkien dokumentu edo idazki ofizialak, bai langileak berak sortuak, bai beste norbaitek itzuliak.</p> <p>Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Langileek hizkuntza aldagai bakoitzari (gaztelania hutsean, euskara hutsean eta ele bietan) emandako balioen batez bestekoa. Galdera honi ez diote erantzungo kolektibo horientzako dokumentu edo idazki ofizialik idatzi behar ez duten langileek.</p>	15,8	36,0	48,2	

	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emaitza (%)		
				Euskaraz	Ele bietan	
2.1.3. Atal/zerbitzuak zerbitzuak ematen dizkieten kolektiboek (unibertsitate bertako nahiz kanpoko eragileek) euskaraz egindako eskaerei erantzuteko erabilitako hizkuntza		20 (6.5)	<p>Komunikazio mota: Zein hizkuntzatan erantzuten zaien kolektibo horiek erakundera euskaraz aurkeztutako idatziei, bai langileak berak euskaraz sortuta, bai beste norbaitek itzulita.</p> <p>Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Langileek hizkuntza aldagai bakoitzari (gaztelania hutsean, euskara hutsean eta ele bietan) emandako balioen batez bestekoa. Galdera honi ez diote erantzungo kolektibo horientzako dokumentu eta idazki ofizialik idatzi behar ez duten langileek.</p>	44.9	25,0	30.1

2.2. BEZERO EDO HERRITARREKIKO AHOZKO HARREMANAK	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea		Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Euskaraz (%)	
2.2.1. Telefono bidezko harrera zerbitzurako, langileek erabilitako hasierako hizkuntza		6 (1.2)	<p>Komunikazio mota: Langilearen eta ahozko zerbitzua eskaintzen dioen EHUko beste atak/zerbitzuetako langileen (irakasle, ikertzaile, AZP), edota Unibertsitate kanpoko eragileen (ikasleak, ikasle potentzialak, gurasoak, unibertsitatera gerturatzen diren bestelako hiritarrak, unibertsitateak zerbitzuak ematen dizkion herri erakunde edo enpresak, eta abat) arteko harreman hizkuntza neurtuko da, baina harrerakoa bakarrik: langileak hasieran zein hizkuntza erabiltzen duen telefonoz agurtzean.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Hala lortuko da adierazlearen ehunekoak. Galdera honi ez diote erantzungo EHUko beste atal/zerbitzuetako langileekin edota Unibertsitate kanpoko eragileekin telefonoz harremanik ez duten langileek.</p>	57,7	

	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea		Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Euskaraz (%)	
2.2.2. Aurrez aurreko harrera zerbitzurako langileek erabilitako hasierako hizkuntza		10 (3.2)	<p>Komunikazio mota: Langilearen eta ahozko zerbitzua eskaintzen dion EHUko beste atak/zerbitzuetako langileen (irakasle, ikertzaile, AZP), edota Unibertsitate kanpoko eragileen (ikasleak, ikasle potentzialak, gurasoak, unibertsitatera gerturatzen diren bestelako hiritarrak, unibertsitateak zerbitzuak ematen dizkion herri erakunde edo enpresak, eta abat) arteko harreman hizkuntza neurtuko da, baina harrerakoa bakarrik: langileak hasieran zein hizkuntza erabiltzen duen aurrez aurre agurtzean.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Hala lortuko da adierazlearen ehunekoak. Galdera honi ez diote erantzungo EHUko beste atal/zerbitzuetako langileekin edota Unibertsitate kanpoko eragileekin aurrez aurreko harremanik ez duten langileek.</p>	52,9	
2.2.3. EHUren beste ataletako nahiz Unibertsitatez kanpoko solaskideek telefonoz erakundearekin komunikatzerakoan erabilitako hasierako hizkuntza		7 (1.3)	<p>Komunikazio mota: Neurtuko da langilearen eta kolektibo horien arteko telefono bidezko harremanean solaskideek zein hizkuntzatan egiten dioten langileari; alegia, zein den EHUren beste ataletako nahiz Unibertsitatez kanpoko solaskideek hasieran erabiltzen duten hizkuntza.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Hala lortuko da adierazlearen ehunekoak. Galdera honi ez diote erantzungo kolektibo horiekin telefonoz harremanik ez duten langileek.</p>	45,3	

	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea		Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Euskaraz (%)	
2.2.4. EHUren beste ataletako nahiz Unibertsitatez kanpoko solaskideek aurrez aurre erakundearekin komunikatzerakoan erabilitako hasierako hizkuntza		11 (3.3)	<p>Komunikazio mota: Neurtuko da langilearen eta kolektibo horien arteko aurrez aurreko harremanean solaskideek zein hizkuntzatan egiten dioten langileari; alegia, zein den EHUren beste ataletako nahiz Unibertsitatez kanpoko solaskideek hasieran erabiltzen duten hizkuntza.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Hala lortuko da adierazlearen ehunekoak. Galdera honi ez diote erantzungo kolektibo horiekin aurrez aurreko harremanik ez duten langileek.</p>	45,2	

	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea		Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Euskaraz (%)	
2.2.5. EHUren beste ataletako nahiz Unibertsitatez kanpoko solaskideekin izandako elkarrizketa osotasunean hartuta, telefono bidezko harremanean erabilitako hizkuntza		8 (2.1)	<p>Komunikazio mota: Zein den langileak erabilitako hizkuntza kolektibo hauekiko telefono bidezko harremanean, komunikazioak osotasunean hartuta, hasieratik bukaerara.</p> <p>Ehuneakoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Hala lortuko da adierazlearen ehunekoak. Galdera honi ez diote erantzungo kolektibo horiekin telefonoz harremanik ez duten langileak.</p>	38,0	
2.2.6. EHUren beste ataletako nahiz Unibertsitatez kanpoko solaskideekin izandako elkarrizketa osotasunean hartuta, aurrez aurreko harremanean erabilitako hizkuntza		12 (4.1)	<p>Komunikazio mota: Zein den langileak erabilitako hizkuntza kolektibo hauekiko aurrez aurreko harremanean, komunikazioak osotasunean hartuta, hasieratik bukaerara.</p> <p>Ehuneakoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Hala lortuko da adierazlearen ehunekoak. Galdera honi ez diote erantzungo kolektibo horiekin aurrez aurreko harremanik ez duten langileak.</p>	39,6	
2.2.7. EHUren beste ataletako nahiz Unibertsitatez kanpoko solaskideen ahozko euskarazko eskaerei erantzuteko erabilitako hizkuntza		13 (4.2)	<p>Komunikazio mota: Solaskideek harremana euskaraz izatea nahiago duten kasuan, langileak zein hizkuntza erabili duen zerbitzua emateko.</p> <p>Ehuneakoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Hala lortuko da adierazlearen ehunekoak. Galdera honi ez diote erantzungo kolektibo horiekin aurrez aurreko harremanik ez duten langileak.</p>	72,6	

2. Ardatza

Lan Hizkuntza

3. Barne komunikazioa eta lan tresnak

3.1. IDATZIZKO BARNE KOMUNIKAZIOA	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak	
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emaitza (%)			
				Euskaraz	Ele bietan		Gaztelaniaz
3.1.1. Lan bileretako dokumentu idatziak		33 (7.8)	<p>Euskarri motak: Zein hizkuntzatan dauden lan bileretako dokumentu idatziak: deialdiak, aktak, txostenak...</p> <p>Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Langileek hizkuntza aldagai bakoitzari (gaztelania hutsean, euskara hutsean eta ele bietan) emandako balioen batez bestekoa. Lan bilerarik izaten ez duten langileek ez diote erantzungo galdera honi.</p>	7,7	38,4	53,9	
3.1.2. Unibertistate barnerako idazki ofizial eta prozedura administratiboetarako erabilitako hizkuntza		29 (7.4)	<p>Euskarri motak: Zein hizkuntzatan idatzita dauden erakunde barnerako langileek sortutako agiri eta dokumentu ofizialak: prozedura administratiboak, bileretako dokumentuak, bestelako barne komunikazioak... Bai euskaraz sortuak, bai beste norbaitek itzuliak.</p> <p>Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Langileek hizkuntza aldagai bakoitzari (gaztelania hutsean, euskara hutsean eta ele bietan) emandako balioen batez bestekoa. Barneko komunikazio ofizialik idazten ez duten langileek ez diote erantzungo galdera honi.</p>	8,9	55,9	35,2	
3.1.3. Langile arteko idatzizko komunikazio ez formaletako hizkuntza		31 (7.6)	<p>Euskarri motak: Zein hizkuntzatan dauden lankideekiko komunikazio ez-formalerako idatzitako oharrak, mezu elektronikoak, eta abar.</p> <p>Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Langileek hizkuntza aldagai bakoitzari (gaztelania hutsean, euskara hutsean eta ele bietan) emandako balioen batez bestekoa. Lankideekiko komunikazio ez-formalik idazten ez duten langileek ez diote erantzungo galdera honi.</p>	19,8	8,9	71,4	

3.2. AHOZKO BARNE KOMUNIKAZIOA	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea		Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Euskaraz (%)	
3.2.1. Lan bileretako ahozko harremanetako hizkuntza		22 (5.2)	<p>Komunikazio mota: Zein hizkuntza erabiltzen den lan bileretan.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Hala lortuko da adierazlearen ehunekoak. Laneko bilerarik ez duten langileek ez diote erantzungo galdera honi.</p>	22.4	
3.2.2. Langile arteko ahozko harremanetako hizkuntza		21 (5.1)	<p>Komunikazio mota: Zerbitzua eman behar dieten kolektiboekiko harremanak alde batera utzita, langileek zein hizkuntzatan hitz egiten duten EHUko atal/zerbitzu bereko edo beste atal/zerbitzuetako lankideekin.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Hala lortuko da adierazlearen ehunekoak.</p>	30.9	
3.2.3. Langile eta atalburu/zerbitzuburuaren arteko ahozko harremanetako hizkuntza		23 (5.3)	<p>Komunikazio mota: Langileek zein hizkuntzatan hitz egiten duten beren atalburu/zerbitzuburuarekin.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Hala lortuko da adierazlearen ehunekoak.</p>	24.9	

3.3. BALIABIDE INFORMATIKOAK	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea		Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Euskaraz (%)	
3.3.1. Euskarazko programa eta aplikazio informatikoak instalatuta dauden lanpostuak (%)	4.1 (3.3)		<p>Euskarri motak: Programa informatiko orokorren euskarazko bertsioak instalatuta dauden lanpostuak.</p> <p>Ehuneakoak kalkulatzeko prozedura: Baliabide informatikoak erabiltzen dituzten lanpostuen kopurua oinarri hartuta, programa informatiko orokorren euskarazko bertsioak instalatuta dauden lanpostuen ehunekoak.</p>	49,9	Baliabide informatikoak erabiltzen dituzten lanpostuen kopurua: 1.880 langile
3.3.2. Euskarazko programa eta aplikazio informatikoen erabilera		42 (8.1)	<p>Euskarri motak: Erakundearen langileek gehien erabiltzen dituzten programa eta aplikazio informatikoetan zenbatetan dagoen euskarazko bertsioa instalatuta.</p> <p>Ehuneakoak kalkulatzeko prozedura: Baliabide informatikoak erabiltzen dituzten langileen erantzunak ehunekotara pasatu ('bakar bat ere ez'=%0; 'erdiak baino gutxiago'=%25; 'erdiak'=%50; 'erdiak baino gehiago'=%75; eta 'guztiak'=%100), eta erabileraren ehunekoaren batura kalkulatu.</p>	22,1	

4. Pertsonen kudeaketa

4.1. LANEKO PRESTAKUNTZA	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea		Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Eraitza (%)	
				Batez beste	
4.1.1. Azken hamabi hilabeteetan, langile bakoitzak, batez beste, parte hartu duen EHUkn antolatutako lan prestakuntzako saio edo ikastaro kopuruan		43 (8.2)	<p>Euskarri motak: Azken hamabi hilabeteetan langileek zenbat aldiz parte hartu duten EHUk antolatutako lan prestakuntzako saio edota ikastaroetan.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: Erantzunetan adierazitako saio edo ikastaro kopuruaren arabera haztatu ('bakar bat ere ez'=0; 'batean'=1; 'bi eta hiru artean'=2,5; eta 'hiru baino gehiagotan'=4), eta, jarraian, prestakuntza saioen batez besteko balioa kalkulatu.</p>	0,29	
4.1.2. Azken hamabi hilabeteetan euskaraz egiteko aukera eskainitako lan prestakuntzarako saio edo ikastaroen ehunekoak		44 (8.3)	<p>Euskarri motak: Azken hamabi hilabeteetan erakundeak antolatutako lan prestakuntzarako saio edota ikastaroetatik, zenbatetan eskaini den euskaraz egiteko aukera.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: Erantzunetan adierazitako saio edo ikastaro kopurua ehunekotara pasatu ('bakar bat ere ez'=%0; 'erdiak baino gutxiago'=%25; 'erdiak'=%50; 'erdiak baino gehiago'=%75; eta 'guztiak'=%100), eta euskaraz egiteko aukera eskaini den saio edo ikastaroen ehunekoen batez bestekoa kalkulatu.</p>	56,3	
4.1.3. Azken hamabi hilabeteetan langileek parte hartutako erakunde beraren prestakuntza ikastaroetako hizkuntza		45 (8.4)	<p>Euskarri motak: Azken hamabi hilabeteetan langileek euskaraz jaso dituzten prestakuntzarako saio edota ikastaroak.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: Langileek emandako erantzunak erabilera ehunekotara pasatu ('gaztelania hutsean'=%0; 'gaztelaniaz gehiago'=%25; 'euskaraz gaztelaniaz bezainbeste'=%50; 'euskara gehiago'=%75; 'euskara hutsean'=%100), eta euskarazko saioen batez bestekoa kalkulatu.</p>	17,4	

5. Kanpo harremanak

5.1. ADMINISTRAZIOA	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea				Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emaitza (%)			
				Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz	
5.1.1. EAEko erakunde publikoetatik (udal, aldundi, Jaurларitza...) jasotako idatzietako hizkuntza		35 (7.10)	<p>Euskarri motak: Zein hizkuntzatan jasotzen diren EAEko erakunde publikoetatik (udal, aldundi, Jaurларitza...) bidalitako idatzizko komunikazioak.</p> <p>Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Langileek hizkuntza aldagai bakoitzari (gaztelania hutsean, euskara hutsean eta ele bietan) emandako batez bestekoa. EAEko erakunde publikoetatik bidalitako idatzizko komunikaziorik jasotzen ez duten langileek ez diote erantzungo galdera honi.</p>	4,10	84,49	11,41	
5.1.2. EAEko herri erakundeetara (udal, aldundi, Jaurларitza...) erakundeak bidalitako idatzietako hizkuntza		37 (7.12)	<p>Euskarri motak: Komunikazioak zein hizkuntzatan bidaltzen diren EAEko erakunde publikoetara (udal, aldundi, Jaurларitza...); bai euskaraz zuzenean sortutakoak, bai itzulitakoak.</p> <p>Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Langileek hizkuntza aldagai bakoitzari (gaztelania hutsean, euskara hutsean eta ele bietan) emandako balioen batez bestekoa. EAEko erakunde publikoetara bidalitako komunikaziorik idazten ez duten langileek ez diote erantzungo galdera honi.</p>	10,74	59,75	29,51	

	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak	
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emitza (%)			
				Euskaraz	Ele bietan		Gaztelaniaz
5.1.3. Erakundeak EAEko beste herri erakundeetara bidalitako idatzietako hizkuntza	5.1. (4.1.2)		<p>Euskarri motak: Komunikazioak zein hizkuntzatan bidaltzen diren beste herri erakundeetara (udalak, aldundia, Jaurlaritza...); bai euskaraz zuzenean sortutakoak, bai itzulitakoak.</p> <p>Adierazlea kalkulatzeko prozedura: AEko beste herri erakundeetara bidalitako agiri eta dokumentuetan erabilitako hizkuntzaren ehunekoak. Item hau erantzun behar dute hizkuntza irizpideak finkatuta dituzten erakundeek</p>	4,4	86,9	8,8	
5.1.4. EAEko erakunde publikoren batekiko (udal, aldundi, Jaurlaritza...) ahozko harremanetako hizkuntza		25 (5.4)	<p>Euskarri motak: Zein hizkuntza erabiltzen den EAEko erakunde publikoren batekiko (udalak, aldundia, Jaurlaritza...) ahozko komunikazioan.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoa; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Hala lortuko da adierazlearen ehunekoa. Erakunde publikoekiko ahozko harremanik ez duten langileek ez diote erantzungo galdera honi.</p>	4,5			

5.2. ENPRESA PRIVATU HORNITZAILEAK	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea				Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Eraitza (%)			
				Euskaraz	Ele bietan	Gaztelaniaz	
5.2.1. EHUrentzat lan egiten duten edo erakundearen hornitzaile diren enpresa pribatuek erakundera bidalitako dokumentazioa		39 (7.14)	Euskarri motak: Zein hizkuntzatan jasotzen diren EHUrentzat lan egiten duten edo erakundearen hornitzaile diren enpresa pribatuetatik (hornitzaileak, zerbitzu enpresak, finantza erakundeak....) bidalitako idatzizko komunikazioak. Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Langileek hizkuntza aldagai bakoitzari (gaztelania hutsean, euskara hutsean eta ele bietan) emandako balioen batez bestekoa. EHUK kontratatutako edo erakundearentzat lan egiten duten enpresa edo entitate pribatuek bidalitako dokumentu edo agiririk jasotzen ez duten langileek ez diote erantzungo galdera honi.	4,8	16,9	78,3	
5.2.2. EHUrentzat lan egiten duten edo erakundearen hornitzaile diren enpresa pribatuetara bidalitako idatzietako hizkuntza		41 (7.16)	Euskarri motak: Komunikazioak zein hizkuntzatan bidaltzen diren EHUrentzat lan egiten duten edo erakundearen hornitzaile diren enpresa pribatuetara (hornitzaileak, zerbitzu enpresak, finantza erakundeak....), bai euskaraz sortutakoak, bai itzulitakoak. Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Hizkuntza aldagai bakoitzaren (gaztelania hutsean, euskara hutsean eta ele bietan) batez besteko balioa. Ez diote galdera honi erantzungo enpresa edo entitate pribatuetara bidalitako komunikaziorik idazten ez duten langileek.	7,8	18,1	74,1	
5.2.3. Erakundeak, azken hamabi hilabeteetan beretzat lan egiten duten edo erakundearen hornitzaile diren enpresa pribatuetara bidalitako idatzietako hizkuntza	5.2. (4.2.2)		Euskarri motak: Zein hizkuntzatan bidaltzen diren komunikazioak (euskaraz sortuak nahiz itzuliak) erakundearentzat (EHUrentzat) lan egiten duten edo erakundearen hornitzaile diren enpresa pribatuetara (hornitzaileak, zerbitzu enpresak, finantza erakundeak...). Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Zein hizkuntzatan bidali zaizkien agiriak eta dokumentuak erakundearentzat (EHUrentzat) lan egiten duten edo erakundearen hornitzaile diren enpresa pribatuei. Item hau erantzun behar dute hizkuntza irizpideak finkatuta dituzten erakundeek	6,7	60,0	33,3	

5.2. ENPRESA PRIVATU HORNITZAILEAK	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak	
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura		Eraitza (%)		
5.2.4. EHUK kontratatutako edo unibertsitatearentzat lan egiten duten edo erakundearen hornitzaile diren enpresa pribatuekiko ahozko harremanetako hizkuntza		26 (5.5)	<p>Euskarri motak: Ahozko komunikazioan zein hizkuntza erabili den EHUK kontratatutako edo unibertsitatearentzat lan egiten duten edo erakundearen hornitzaile diren enpresa pribatuekin (hornitzaileak, zerbitzu enpresak, finantza erakundeak...).</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: 0-10 arteko balioetan jasotako erantzunak baliatu behar dira portzentajea lortzeko. Honela: lehenbizi, kalkulatu balio bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak; bigarrenik, ehuneko hori biderkatu balioa/10-ekin; azkenik, biderketa guztien emaitzak batu. Hala lortuko da adierazlearen ehunekoak. Ez diote galdera honi erantzungo erakundeak kontratatutako edo erakundearentzat lan egiten duten enpresa edo entitate pribatuekiko ahozko harremanik ez duten langileek.</p>		21,1		

6. Erakundearen hizkuntza kudeaketa

6.1. SORTZE HIZKUNTZA	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak	
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emitza (%)			
				Euskaraz	Ele bietan		Gaztelaniaz
6.1.1. Idatzizko lanaren sortze hizkuntza		27 (7.2)	<p>Euskarri motak: Zein den idatzizko testuaren jatorrizko edo sortze Hizkuntza, lanean idatzi beharreko dokumentuetan , bete beharreko inprimakietan, bidali beharreko mezu elektronikoetan, eta abar.</p> <p>Ehunekoak kalkulatzeko prozedura: Langileek hizkuntza aldagai bakoitzari (gaztelania hutsean, euskara hutsean eta ele bietan) emandako balioen batez bestekoa. Lanean testurik idatzi behar ez duten langileek ez diote erantzungo galdera honi.</p>	16,3	23,8	59.8	

6.2. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emitza		
				Bai	Ez	
6.2.1. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideen ezarpena EAEko beste administrazioetara bidalitako agiri eta dokumentuetan	5.1. (5.6)		Elementua: Erakundeak HOElak onartuta dauzkan ala ez herri administrazioetara bidalitako dokumentuetan Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Erantzuna baiezkoa ala ezezkoa izango da: erakundeak HOElak ezarrita dauzkan ala ez.	16	2	Administrazioarekin ez dituztela diote: Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Fakultateak, eta Gasteizko Ingenieritza Eskolak.
6.2.2. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideen ezarpena hornitzaile diren edo zentroarentzat lan egiten duten enpresa eta erakunde pribatuetan bidalitako komunikazioetan	5.2. (5.6)		Elementua: Erakundeak HOElak onartuta dauzkan ala ez hornitzaile eta enpresa eta erakunde pribatuetara bidalitako dokumentuetan. Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Erantzuna baiezkoa ala ezezkoa izango da: erakundeak HOElak ezarrita dauzkan ala ez.	3	15	Hornitzaileekin badituztela, berriz: Gipuzkoako ingeniarietza eskolak, Farmazia fakultateak eta Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateak.

				Emitza (%)	Oharrak
6.2.3. Erakundearen hizkuntza irizpideen ezagutza	6.1 eta 2.1. Campus	(9.1)	Elementua: Zenbateraino ezagutzen diren Unibertsitatearen Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako irizpideak Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Solaskideen erantzunak, baietz ezagutzen dutela dioten solaskideen ehunekoa	14 Fakultate eta 3 Kanpus %80,9	
6.2.4. "UPV/EHUren harreman ofizialetan hizkuntzen erabilerarako jarraibide eta irizpideak" dokumentuaren ezagutza	6.2 eta 2.2. Campus (-)		Elementua: Zenbateraino ezagutzen diren "UPV/EHUren harreman ofizialetan hizkuntzen erabilerarako jarraibide eta irizpideak" dokumentua Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Solaskideen erantzunak, baietz ezagutzen dutela dioten solaskideen ehunekoa	13 Fakultate eta 3 Kanpus %76,2	
6.2.5. HOElren betetze maila	6,3 eta 2.3 Campus	(9.2)	Elementua: Zenbateraino betetzen diren hizkuntza irizpideak. Adierazlea kalkulatzeko prozedura: Solaskidearen erantzunak hizkuntza irizpideak betetzeari buruz. "Erabat" eta "maila altuan" adierazleen batura kalkulatu ehunekotan.	8 Fakultate eta 2 Kanpus %47,6	

6.3. HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea				Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	HE	Lanpostuak HEri jarraikiz (%)	Dagokiona edo altuagoa egiaztatuta (%)	
6.3.1. Lanpostu kopurua hizkuntza eskakizunari jarraikiz	RPT (5.2)		Elementua: Lanpostuak, dagokien hizkuntza eskakizunari jarraikiz. Adierazlea: Lanpostu horien ehunekoa, lanpostu guztiekiko.	1. HE	8,8	78,8	
				2. HE	59,1	77,8	
				3. HE	29,4	71,6	
6.3.2. Dagokion HE edo altuagoa egiaztatua duten lanpostuak	RPT (5.3)		Elementua: Dagokien hizkuntza eskakizuna edo altuagoa egiaztatua duten lanpostuak. Adierazlea: Lanpostu horien ehunekoa, lanpostu guztiekiko.	4. HE	0,8	100,0	
				Zehaztu gabe	1,9	0,0	
				Guztira	100,0	74,7	

	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea		Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emaitza (%)	
6.3.3. Derrigortasun data igarota eduki eta hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe duten lanpostuen ehunekoa	RPT (5.4)		Elementua: Derrigortasun data igarota egon arren, dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe duten lanpostuak. Adierazlea: Derrigortasun data igarota hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabeko lanpostuen ehunekoa, lanpostu guztiekiko.	6,3	

6.4. LANGILEEN ETA ATALBURU/ZERBITZUBURUEN SOSLAI LINGUISTIKOA	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emitza (%)		
				Hitz egiteko gai	Idazteko gai	
6.4.1. Erakundeko langileen euskara gaitasuna		49 (10.7)	Elementua: Erakundeko langileek euskaraz hitz egiteko eta idazteko duten gaitasuna. Adierazlea: Euskaraz 'nahiko ongi' eta 'ongi' hitz egiteko eta 'nahiko ongi' eta 'ongi' idazteko gai diren langileen ehunekoak.	65,5	68,7	
6.4.2. Parte hartutako langileen atalburu/zerbitzuburu hizkuntza gaitasuna		24 (-)	Elementua: Langileek, euren atalburu/zerbitzuburu euskara gaitasunaz emandako erantzuna. Adierazlea: Euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gai diren ehunekoak.	77,5	66,8	

6.5. LANGILEEN PARTAIDETZA	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea		Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emitza (%)	
6.5.1. Erakundeak bultzatutako euskararen normalizaziorako ekimenen parte hartzea		46 (9.3)	Elementua: Azken hamabi hilabeteetan erakundeak (EHUK) bultzatutako euskararen normalizaziorako ekimenetan izandako parte hartzea. Adierazlea: Parte hartzeaz galdetuta 'asko' eta 'nahikoa' erantzun duten langileak, ehunekotan.	9,9	

6.6. LANGILEEN BALORAZIOAK EUSKARAREN BILAKAERARI BURUZ	Galdetegia		Ebaluazio adierazlea			Oharrak
	Orokorra	Langileena	Kalkulurako prozedura	Emitza (%)		
				Positiboa	Negatiboa	
6.6.1. Erakundearen erabilerak duen bilakaerari buruzko balorazioa		51 (10.8)	Elementua: Langileen balorazioa euskararen erabilerak erakundearen (EHUn) duen bilakaerari buruz. Adierazlea: Ehunekotan adierazita, 'oso positiboa' eta 'positiboa' erantzun dutenak, eta 'oso negatiboa' eta 'negatiboa' erantzun dutenak.	52.2	5.2	
6.6.2. Norbere lanpostuan euskararen erabilerak duen bilakaerari buruzko balorazioa		50 (-)	Elementua: Langileen balorazioa euskararen erabilerak bere lanpostuan duen bilakaerari buruz. Adierazlea: Ehunekotan adierazita, 'oso positiboa' eta 'positiboa' erantzun dutenak, eta 'oso negatiboa' eta 'negatiboa' erantzun dutenak.	39.6	9.8	

				Emitza (%)		Oharrak
				Gero eta gehiago	Gero eta gutxiago	
6.6.3. Duela bost urtetik hona, laneko ahozko komunikazioetan euskarak izan duen bilakaera		47 (9.4. Ahoz)	Elementua: Langileek adierazita, duela bost urtetik hona laneko ahozko komunikazioetan euskarak izan duen bilakaera. Adierazlea: 'Geroz eta gehiago' erantzun dutenen ehunekoa, eta 'geroz eta gutxiago' erantzun dutenena.	40,9	10,5	
6.6.4. Duela bost urtetik hona, laneko idatzizko komunikazioetan euskarak izan duen bilakaera		47 (9.4. Idatziz)	Elementua: Langileek adierazita, duela bost urtetik hona laneko idatzizko komunikazioetan euskarak izan duen bilakaera. Adierazlea: 'Geroz eta gehiago' erantzun dutenen ehunekoa, eta 'geroz eta gutxiago' erantzun dutenena.	38,1	9,5	

7. Ondorioak

UPV/EHUko AZPko langileen hizkuntza erabileraren diagnosia eginik, hona eskuratutako datuetatik atera daitezkeen ondorio nagusiak:

- **Hizkuntza gaitasuna: langileen adinaren eragina.** Erakundeak emandako datu ofizialen arabera, AZPko langile guztien %75ek badute beren postuari dagokion hizkuntza eskakizuna. Derrigortasun data izatea giltzarri da eskakizunak betetzeko: derrigortasun data ezarria duten postuetan portzentaje oso altu batek egiaztatuta daukate dagokien eskakizuna, data jada pasata dutenen %94k eta 2019 urteko data dutenen %98k; data ezarri gabe daukaten postuetan, berriz, %44k.

Inkestaturiko langileei galdetu zaie nolako gaitasuna duten lau trebetasunetan (ulermena, irakurmena, idazmena eta hizketa); haien arabera, hamarretik zortzik ondo edo nahiko ondo ulertzen eta irakurtzen dute; eta hirutik bik idazten eta hitz egiten. Adina faktore erabakigarria da gaitasunari dagokionez: zenbat eta adin talde gazteagoa, orduan eta euskara gaitasun handiagoa. Aurrerabidea hortik etor liteke, beraz. Arazoa da orain arte oso mugatua egon dela gazteen sarbidea: batez besteko adina 50 urte eta erdikoa da erakunde esparru osoa hartuta, eta 35 urtez beherakoak %4 dira.

- **Irudia: elebitasuna.** Euskal Herriko Unibertsitatearen iruditerian oso orokortua dago euskararen eta gaztelaniaren aldi bereko erabilera. Hizkuntza bakarra erabiltzea nabarmen gutxiago ageri da. Jendaurreko ekitaldiak dira salbuespena: laurdenak erdara hutsez aritzen dira. Erabilera moduan badago aldea: iruditeriarekin aztertutako guztiak idatzizkoak dira; ekitaldiak, ahozkoak.
- **Zerbitzu hartzaileekiko harremanak: lehen hitza.** Langileen erdiek adierazi dute ohitura dutela lehen hitza euskaraz egiteko telefonoz; aurrez aurre gutxiagok, hamarretik lauk. Langileek zein hizkuntza erabiltzen duten solasaldia hasteko, faktore pisuzkoa da hori: haiek izaten dituzte euskarazko solasaldi gehien. Zerbitzuak jasotzen dituzten kolektiboen lehen hitza zenbat egiten duten euskaraz eta ondoren solasaldiak osorik zein hizkuntzatan egiten dituzten, badago jaitsiera bat. Langileen euskara gaitasuna, jakina, giltzarri da lehen hitza euskaraz egiteko garaian.
- **Zerbitzu hartzaileekiko harremanak: euskarazko eskaerari erantzuna.** Zehazki aztertu da zerbitzua euskaraz eskatu dutenei nola erantzuten dieten AZPko langileek. Gehienei euskaraz ematen diete zerbitzua, baina ez beti, langileek azaldu dutenez: ahozkoan hamarretik biri erdara hutsean ematen zaie zerbitzua; idatzizkoan, agiriak euskaraz aurkeztu dituen hamarretik hiruri erdara hutsez erantzuten zaie.
